Hegats

Literatur aldizkaria

38

Txosten Monografikoa:
MEMORIAK ETA EGUNEROKOAK

Elkarrizketa:
PIARRES XARRITON



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur aldizkaria

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Kideak: Tere Irastortza
Maite Gonzalez Esnal
Mikel Asurmendi
Jerardo Elortza
Aritz Gorrotxategi

Zuzentzailea: Jon Urruxulegi

Koordinatzailea: Hasier Rekondo

Diseinua eta maketazioa: K3 Inprimategia
Amillaga, 1 - 6. pabiloia. 20570 Bergara

Euskal Idazleen Elkartea
Zemoria 25
20013 Donostia
Tel.: 943.27.69.99. Faxa: 943.27.72.88
P.E.: eic@idazleak.org

ISBN: 1130-2445
L.G.: SS-359/90

Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen *Hegats* aldizkariko kolaboratzaileen iritziak.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 7

Literaturbideak:

Aritz Gorrotxategi. *Zergatik ez dute ihes egiten elefanteek?* 13

Leire Bilbao. *Memoria II* 19

Kritikabideak:

Edorta Jimenez. *Itsasoko memoriak. Herman Melvillek idazti ez zuenaz* 25

Fito Rodriguez. *Idazle ikasketak Swanen bidean* 37

Txosten monografikoa: Egunerokoak eta memoriak.

Vicente Huici. *Eguneroko eta dietariaoak: Egunez eguneko imajinarioaren idazkera esparru literarioan* 49

Jerardo Elortza. *Memoriak eta autobiografiak euskaraz: 1. Gerrari buruzko oroitzapenak (Hurbilketa)* 61

Elkarrizketa:

Piarres Xarriton. *Iparraldeko literatura bideen iturrietaz 20. mendean* 81

Liburu-iruzkinak:

Amaia Iturbide. *Hiru bide eleberrigintzan* 93

Tere Irastortza. Mikel Lasaren *Memory Dump* 99

Cees Noteboom: *"Edozein lekutan etzaten den txakur baten antzekoa da memoria"*.

Egunerokoak eta memoriak ditu ardatz *Hegats*-en 38. zenbakiak. *"Literatur bideak"* atalean, Aritz Gorrotxategik elefantearen irudia erabili du, animalia honek duen oroimenerako gaitasun berezia profitatuz. "Elefantea eta memoria lotuak dauden moduan, berdin daude lotuak memoria eta abiadura", diosku *Kearen truke* eleberriaren egileak. Atal berean, Leire Bilbao poetak harribitxi minimalista bi oparitu dizkigu *Memoria II* izenburuko poeman eta Virginia Woolf-en aipu bat dakar besapean: "Ezer ez da gertatzen, memoriak eutsi eta gordetzen ez duen bitartean".

"Kritika bideak" atalean, Fito Rodriguezek memoriaren paradigma bihurtu den Marcel Prousten gaineko ikuspegia azaleratzen du eta bide batez zenbait galdera luzatu ere: *"Izan ere, ba al dago ikasterik idazle bilakatzeko? Nondik abiatuta eta zeren bidez ikas daiteke idazkuntza literarioa? Eta, egitekotan, zeintzuk lirateke horrelako ereduak eta ibilbideak?"*

Edorta Jimenezek, bere aldetik, Herman Melvillen gaineko teoria du: idazle amerikarrak idatzi ez zuenaz hipotesi literarioa eraiki du kanibalismoaren tabuaren hauspoari eraginez.

Iparraldeko bi idazle ditugu aurrez aurre elkarrizketari eskaintzen diogun atalean. Luzien Exezaharretak Piarres Xarriton izan du solaskide, *Iparraldeko literatura bideen iturrietaz 20. mendean* izenburuko elkarrizketan.

Txosten monografikoan, Vicente Huicik memoriari buruzko zehaztapenak egiten ditu, egunerokoen eta dietarioen definizio oso interesgarria darabil: "onartu egiten dute ondoko genero literarioetan disolbiltzen den narratibitatearen haria". Jerardo Elortzak euskal

literaturan gerrak izan duen eragina kontutan hartuta, autobiografia eta memoria kutsua duten lanak ekarri dizkigu gogora, zeren eta topikoa izan baita honelako lanik ez dagoela euskal literaturan. "XX. mende aurretik ez zen tankera honetako prosa-lanik euskaraz argitaratu, baina bertsoak, kanta-paperak eta antzekoak erruz zabaldu ziren alde bateko nahiz besteko berri emateko edo propaganda egiteko".

Azkenik, liburu iruzkinei eskaini ohi diegun tartean, Juan Marsé, Enrique Vila-Matas eta Javier Cercasen eleberrigintzaren bideen nondik norakoak landu ditu Amaia Iturbidek. Honez gain, Tere Irastortzak Mikel Lasaren *Memory dump* liburuaren gaineko iruzkinean honela dio: "pertsonaren intimitatea osatzen duen galdera eta kezken joan-etorri geraezina dakusagu".

Hasier Rekondo

Literaturbideak

Aritz Gorrotxategi

Leire Bilbao

ARITZ GORROTXATEGI

Zergatik ez dute ihes egiten elefanteek?

Memoriari buruz idazteko eskatu didate, eta burura datorkidan lehen hitza elefantea da. Hortik hasiko naiz, beraz. Ezaguna da herri jakinduriak aspalditik berdindu dituela pakidermoa eta gogoratzeko gaitasuna. Egia esan, aspaldi ikasi nuen nik esamolde horren arrazoia. Bederatzi urte izango nituen orduan, eta gogoan dut zirkua ikustera joan nintzela gurasoekin. Berehala joan zitzaidan begia karpa ondoan zegoen animalia erraldoi harengana. Elefantea zutoin bati lotuta zegoen kate batez. Hala zutoina nola katea ez ziren nire izterra baino lodiagoak. Pakidermoaren tronpa luzeak galdera ikurra marrazten zuen airean. Haatik, tronpa zen mugiarazten zuen gorputzeko atal bakarra. Gainontzean, elefanteak ez zuen beste keinurik egiten. Geldi-geldi zegoen, kakahueteak jaurtitzen zizkioten haurrei tristuraz begira. Gaur egun, esango nuke fadoa ikusi nuela elefantearen begietan. Orduan, animaliaren begiratu errukitsuak bainoago, beste zerbaitek piztu zuen nire arreta. Nik banekien elefanteak kapaz zirela zutoin bat bakarrik ez, baita zuhaitz oso bat lurrera botatzeko. Hala ere, elefante hura geldi-geldi zegoen, bere pisu guztia zutoinak mugatuko balu bezala. Ez zuen askatzeko ahaleginik egiten, txintxo-txintxo zegoen buztin artean ainguratua. Aitari galdetu nion orduan zergatik ez zuen elefanteak ihes egiten. Kolpe leun bat jo zidan buruan. Otzandua dagoelako, erantzun zidan aitak. Bitan pentsatu gabe itzuli nion galdera. Otzandua badago, zergatik lotzen dute? Erantzunik jaso gabe geratu nintzen. Aitak, sarrerak eskutan, karpa barrura sartzeko keinua egin zidan.

Etxean, jada, buelta batzuk eman nizkion kontuari. Elefanteak ez badu ihes egiteko saiorik egiten, seinale primeran ezagutzen dituela bere mugak. Elefanteak badaki ezin duela ihes egin, horixe irakatsi diotelako txikitan, dela makila lodiagoei lotua, dela makilakada in-

dartsuen bidez. Ziurrenik, saiatuko zen txikitan noiz edo noiz ihes egiten, baina luze gabe ohartuko zen ezinezkoa zela. Hartara, pena handiz ondorioztatu nuen elefanteak ikasten duen aitzin lezioa inpotentziarena dela, eta lezio hori da bere memorian barneratzen lehena. Hortik esamoldea.

Elefantearen pasadizoa alde batera utzita, egin dezadan aurrera. Izan ere, bada liluratzen nauen beste kontu bat: abiadurarena. Elefantea eta memoria lotuak dauden moduan, berdin daude lotuak memoria eta abiadura. Ohartu bazarete, gertatu berri zaigun zerbait desatsegina ahaztu nahi badugu, korrika eta presaka abiatzen gara kalean aurrera, jende artean itsu-itsuan zulo eginez, abiadurak pasadizo desatsegina ahazten lagunduko digulakoan. Eta alderantziz, zerbait go-goratu nahian gabiltzanean, geldotu egiten dugu ibilera. Zer pentsa ematen du horrek, ezta? Badirudi badagoela halako proportzionaltasun bat memoria eta abiaduraren artean. Berdina esan daiteke denborari buruz. Zenbat eta gehiago bizi, orduan eta material kopuru handiagoa pilatzen dugu memorian, baina gero eta zailagoa da akordatzea.

Gero badago memoria oneko jendea eta memoria txarrekoa. Badira aurpegiekin erraz akordatzen diren pertsonak. Uste dut fisionomistak esaten zaiela, baina ez daukat eskura hiztegia. Tamalez, badira baita ere berehala ahaztu nahi ditugun aurpegiak. Memoriak datuak biltzen ditu, baina ez dakigu zein neurritaraino duen datu horiek dosifikatzeko ahalmena. Nolabait esanda, memoria biltegi erraldoi bat da. Demagun korridore eta atal ezberdinetan banatua dagoela. Ezker hegalean aurpegiak, gauza onak, txikitako kontuak... Ezkerrean, buruz ikasitako poemak, filmen pasarte lainotsuak, maite dugun norbaiten urtebetetze data... Galdera da: nork aukeratzen ditu gogora ekarri nahi ditugun memoria puskak? Zergatik pilatzen dira pasarte batzuk gainontzekoak galtzen diren bitartean? Pentsatzen jarrita, dibertigarria da gure memoria administratzen duen burokrazia oso bat irudikatzea, bere mezulari eta kontseilari propioekin.

Dena den, Freuden esanetan, memoria txarra ez da kasualitatea. Badira telefono zenbakiak sekula gogoratzen ez dituzten pertsonak. Beste hainbeste gertatzen da urtebetetze datekin eta abarrekin... Austriarraren ustez, deskuidu txiki horiek ez dira deskuiduak. Subkontzientean ba omen dago gauzak ahaztu edota gogoratzeko borondate ezkutu bat, trauma txikietan eta enparauetan oinarritua. Alegia, memoria kontuetan ezer ez dela kasuala. Beraz, gu geu gara gogoratzen dugunaren eta ez dugunaren erantzule.

Memoriaren beste fenomeno interesgarri bat déjà vu edo paramnesia delakoa da. Inoiz bizi ez dugun zerbait jada bizi dugula sentitzea bezalakoa. Badakizue, autobusean zoazte eta zerbait ikusten duzue leihotik. Ez dakizue zergatik, baina iruditzen zaizue eszena hori bizi izan duzuela dagoeneko, keinu eta hitz berdinekin. Neurri handi batean, amets bat bezalakoa da; edo, nahiago baduzue, memoriaren biltegitik ihes egiten duen pentsamendu polizoi bat. Memoriaren etorkin bat okerreko korridorean, auskalo ze lurralde berriren bila... Egia esatea nahi baduzue, artikulu hau idaztean, lehendik idatzia dudala sentitu dut. Seguru tiradera batean gordeta utziko nuela, paper zaharren artean. Baina hasi orain bilatzen... Kasualitatez, duela gutxi egin dut etxe mudantza, eta, oraindik ez dut etxe berria oso ondo ezagutzen. Gainera, oso handia da, eta ez dakit zehazki non utzi zituzten mudantzako morroiek nire kaxak. Bertan dauzkat nire liburu eta eskuizkribu orotarikoak. Gaizki iruditzen ez bazaizue, nahiago dut luma puntu honetan ez uztea. Denbora gehiegi hartuko lidake paper guztiak banan-banan begiratzeak.

Bestalde, paper gabe geratzen ari naizenez, idazkia amaituz joango naiz. Bukatzeko, aspalditik bueltaka dabilkidan kontu bat jaso nahi nuke. Denok dakizue bost zentzumen dauzkagula: ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena eta ukimena. Bada, nire ustez, memoria litzateke seigarrena. Azken batean, ezinbestekoa dugu memoria bizirauteko, gauzak gogoratzeko... Zentzumen klasikoek ez digute esaten nor garen, zer egin baizik. Memoria da guztien arteko

lotura ahalbidetzen duen gain-zentzumena, beste guztiak edukiz betetzen dituena. Gogoratzen ez dugun neurrian, ez gara existitzen. Bai, badakit Descartesek beste modu batean idatzi zuela, baina niri horrela gustatzen zait. Memoria gabe ez gara ezer. Pentsa, hildakoen hilarrietan ere idazten ditugu biografia laburrak, joandakoak ez ahazteko. Ni neu ere ilea aspaldi urdindua nago, eta gauzak ahazten hasi naiz dagoeneko. Eskape txiki bat bezala, tantaka-tantaka. Tarteka, izaten ditut argi uneak, eta aspaldiko kontuekin akordatzen naiz. Aurpegiak, izenak, lekuak... Adibidez, galdetzen badidazue zein zen 54ko Mundu Kopako Hungariako selekzioaren hamaikakoa, eserialdi batean esango nizueke: Puskas, Hidegkuti, Kocsis, Bosnik, Kroetowth... Ai, tamalez, oso gutxitan izaten dira argi uneak. Gero eta gutxiagotan.

Hala ere, ez naiz kexatuko. Etxe berrian oso ondo tratatzen naute. Zuriz jantzitako emakume bat dago nire kargura. Ez galdetu bere izenik, ez baitut gogoratzen. Hori bai, goxo-goxo hitz egiten dit, eta kilimak egiten dizkit arropa aldatzean. Etxeak dozenaka korridore eta bihurgune dauzka, memoriak bezala. Gero badaude pertsona batzuk ni bisitatzera etortzen direnak tarteka. Ez dakit zeintzuk diren, baina negarrez egoten dira gehienetan. Niri begira eta negarrez, ni neu zutoin bati lotuta dagoen elefante bat banintz bezala. Elefantea ni eta umeak haiek, beti negar eta negar. Eta ez dakit zergatik, ni ondo nago. Zaintzen nauen emakumeak behin eta berriz esaten dit nire seme-alabak direla, baina nik ez ditut gogoratzen. Ez dakit sikiera emazterik ote nuen. Kontua da nahigabetu egiten direla nigatik, eta ni ere nahigabetu egiten naiz haiengatik, sekula ez baitzait gustatu jendea sufritzen ikustea. Tira, galdu dut haria berriro ere. Zertaz ari nintzen?

LEIRE BILBAO

Memoria II

Ezer ez da benetan gertatzen,
memoriak eutsi eta gordetzen ez duen bitartean
(Virginia Wolf)

eskatuiozu ipuina

eskatuiozu ipuin bat itsasoari,
—esan zidan—
altxorrak bezala gordetako
arrantzale istorioren bat konta diezazun eskatuiozu.
nik baino memoria hobea dauka.

edo eskatuiozu ipuin bat ibaiari
hark eramaten dizkio laborarien berriak itsasoari
lurreko istorioak esango dizkizu
meandroren batean hitzen bat galdu arren.

eskatuiozu ipuin bat errekari bestela
harriekin batera ekarriko dizkizu mendiko kontuak.
isilik daudela uste duzu
baina baxu hitz egiten dute.

niri,
niri ez egidazu konturik eskatu
—xuxurlatu zidan—
dena ahazten dut.

ez dut egin nuena gogoratu nahi.

ahaztu

ahaztu ditut
eternoak ziruditen larru jotzeak
desio begiradak
nire amorante zerrenda
ahaztu ditut
lanordu amaigabeak
barreak
nekeak
lagunen aitortzak
ahaztu dut
amaren aurpegia
itsasoak nola usaintzen duen
zenbatzen ere ahaztu dut
irribarre egiten
ahaztea da ahaztu ez dudan bakarra
horregatik, oroitu nahi dut berriz.

Kritikabideak

Edorta Jimenez

Fito Rodriguez

EDORTA JIMENEZ

Itsasoko memoriak. Herman Melvillek idatzi ez zuenaz

Behin batean bazen ontziei erasotzeko gai zen balea. Egiazkoa balea, egiazko ontziei. Dokumentaturik erasoaldi bakarra eta ontzi bakarra dira baina, nork daki.

Balea ez zen zuria, hori ere egia da. Ezin, bada, *Balea Zuria* iritzi. Nolanahi ere, haren erasoaren ondorioak pairatu zituztenek baleari beste izenik eman ziotenentz, ez da egiaztatu. Eta eman izan bazioten ez dirudi, ezta ere, *Moby Dick* eman ziotenik, dokumentuetan ageriko zatekeen eta. *Piztia* generikoa iriztearekin nahikoa. Ontziari dagokionez hark bazuen bere izen argia; *Essex*.

Erasoaldiaren lekukoen izkribuek diotenez, 1820ko urtean balea batek *Essex* izeneko baleontziari aurre egin zion-eta, zein izen eman animalia hari, *Piztia* besterik? Baleazaleen izua imajinatu ahal dugu, *Piztia*k buruaz euren ontziari aurre egiten ziola ikustean. Nabigazio urteetan ahoz ahozkoetan aditurik ukan bide zituztenak hantxe ziren gauzaturik, modu sineskaitzean ukan ere.

Baleazaleek bazekiketen; naturako izakien artean izaki baketsurik izatekotan, balea! Erasotzaileak ikusten etorri, eta ez du hala ere guztiz ere alde egiten. Ez behintzat ahal izango lukeen modu erabakigarrian. Halakoxea izan euren sena. Haatik, ontzietan zebiltzan jendeek bazuten susmoa, balea errebelatuko ez ote zen egunen batean, senaren sakonetik amorru berri bat ernalarazita.

Bada, bai. Bere espezie berekoei gizakiek hainbeste arpoi jaurti ostean, itsas azala kideen odolez bustian ibilita gero, hara non datorren hamaikatxo zauritu eta akabaturen mendekua-edo egin gura duen balea. Mendeku egarriaren egarriaz *Piztia* bilakaturiko balea. Buztana deabruaren zartailu eta burua ariete, Jainkoaren zigorraren

pertsonifikazioa ote? Galdera horrek Herman Melvilleri nondik nora eragin zion argitzea gerorako utzita, noan, labur ez bada ere, *Essex* ontziaren kasua azaltzera.

Essex baleontzia 1819ko abuztuan abiatu zen, AEBko ekialdean den Nantucket irlako portutik. Esan nahi baita, munduko balearen industriaren gune nagusia eta, era berean, puritano protestante muturrekoen habia zen lekutik. Han barruan, irlatik gertuko kontinentean, olioa behar zuten. Erruz behar ere. Kapitalismo hazkorraren makinak koipeztatzeko. Eta artean beste inon ez koipea eskurago itsasoan baino. Horretarako eskuan arpoia, oinak txalupan eta txalupa itsas bazter egokian ibili behar, jakina. Bada, garaian ohikoa zen legean, *Essex* baleontziak balea bila bi urte egiteko asmotan ekin zion bere itsasaldiari.

Itsasaldiak Amerika osoko luzea hartu behar zuen. Aipatu portuan abiaturik Azore Irletara jota lehenik eta behin, hortik gero Cabo Verde izenekoetara eginda, Atlantikoan behera eta behera Hornos Lurmuturreraino iritsi zen. Behin mundu ezagunaren hegoa hortxe gainditurik, Ozeano Barera, eta horretan gora eta gora eginez baleak ugarien ziren lekua bilatzeari ekin zion. *Galapagoak*, edo beste izen batez *The Encantadas* —adi izenari—, halaxe zeritzen irlak baino mendebalderago.

Bere legeko besteak baino hobea ez, ezta ere eskasagoa, askoren arteko beste bat zen *Essex* baleontzi hartan hogeita bi gizon ziren. Batez bestekoan halako gehienetan izaten zirenak, horretan ere arrunta zen ontzia. Era berean zereginak eta ardurak, hots, karguak eta halakoak; horiek ere Nantucket hartako edozein baleontzitan izaten ziren berberak ziren. Kapitana eta bi ofizial, arpoilariak eta gainerakoak, hots, marinelak. Denak ere gai balea ehizatu ondorengo zereginetan ez ezik haren ehizan txalupetan joateko ere. Guztien izenak aipatu gabe, hemen azaldu nahi denari buruzkoan gogoan gorde beharrekoak dira George Pollard Jr. kapitaina, lehen ofizial Owen Chase, eta Thomas Nikerson ontzimutila, hamalau urterekin eskifaiako gazteena.

Esan bezala, arrunta zen itsasaldiari ekin zion bera ere arrunta zen baleontziak. Abiatu eta hamabost hilen buruan, baleak ugarien izaten ziren kaletara iristekotan zirelarik, 1920ko azaroaren 20an hain zuzen, balea itzel handi batek —*Piztia*k!— ontzia suntsitu zuen, buruaz jo eta jo; marinelek bateletara jo zuten. Ekuadorreko marran berbertan zeuden, 120 gradu ekialderantz.

Ontzitik txalupetara atera ahal izan zituzten, ozta-ozta, gaileta batzuk, edateko ura, dortoka aleak, iltzeak eta nabigazio tresna batzuk. Besterik ez. Dena *Essex* hura hondoratu aurretik. Bizkor desagertu ei zen-eta baleontzia urpean. *Essex* zorigaiztokoa hondora joan zenerako, eskifaiakoak, ordurako hogei gizon guztira, balea-txalupetan zeuden. Artean bizirik.

Hiru ziren txalupak. Balearen ehizan jarduteko atondurik, arraunen indarrez eta haizearen bafadez unada laburretan nabigatzeko gai ziren arren, naufragatu berriek gaitz zeukaten haietan itsasaldi luzerik egitea. Ezta behar ere kasu hartan halakorik. Inguruetan bazen nora jo. Frantziar Polinesia, Tahiti-eta, ez ziren urrun. Ezta ere beste irla batzuk. Gainera, Polinesiakoetara jo nahi izanez gero haizea zeukaten alde. Haatik, *Essex* baleontzikoek ahoz ahozkoan entzunak zituzten beste kontu batzuk *Piztia* bezalakoei ipuinak baino asaldagarriagoak ziren kontuak. Irla haietakoak kanibalak zirelakoan zeuden eta, hura izua. Bada, aurrera egin baino lehen komeni da izu horren nondik norakoaz zerbait argibide ematea.

Gizajaleak eta txalupak

Antropofagoa, gizajalea, irudiz zein hitzez, europarren mamu izuarazlea izan da, Aitzin Aro klasikotik kasik gaurdaino. Hala idatzizkoetan eta irudietan nola ahoz ahozkoetan hedaturiko mamua, hain zuzen. Hori, haragijaleez esan ahal dena. Besterik da kanibal kontzeptua dela eta esan daitekeena.

Badirudi kanibal hitza Cristobal Colonek sortu zuela, Kan Handiaren bila zebilelarik[1]. *Kanibal* hitza hitz sortu zutenez geroztik

gaurdaino modu ezberdinetan landua. Montaignek *Entseguak* liburuan esangura positiboa eman zion[2], eta badirudi W. Shakespearek *Ekaitza* antzezlanean ageri den Caliban pertsonaia —*cannibal* hitzaren akronimoa— ikuspegi positibo horrexen eraginez sortua dela[3]. Esangura hori galduz joan zen, ostera, halako moduan galtzen ze, XVIII. menderako hitzari esangura negatiboa zerion. Kanibalak gizakiak jatea, ez da harrez gero ekintza erritualtzat ikusiko, zibilizatu gabeko piztien parekoen basa grina legez baino.

Gaiak beste sakontasun bat merezi duela jakinik, ausartu egingo naiz esaten, bada, kanibalaren irudi topikoa europarren artean —Ameriketako zuriak ere europartzat hartuta diot hau— zabaldu zuen liburua *Robinson Crusoe* izan zela. Beste alderdi askotatik gogoangarri den eleberria Daniel Defoek idatzi zuen eta, gogoratzea komeniko litzateke idazle horrek berorrek idatzi zuela *A General History of the Robberies and Murdes of the most notorius Pyrates* delakoa[4].

Charles Johnson Kapitainaren apokrifo modura argitaratu zen liburua, 1724an, eta harrez gero Ameriketako itsasoetako piratei buruz idatzi diren liburu guztien ama dela esan daiteke. Beraz, bazekikeen Defoek kanibalik bazen ala ez zen ur haietan. Liburuan halakoren baten aipua bada baina, beste itsaso batean kokaturik. Beraz, eleberrigileak *Robinson Crusoe* liburuan agertu zigun kanibala nondik atera zuen, ez dakit. Nolanahi ere, eta nire aldetik bazenik ez zenik ez bai eta ez ez esan gabe, ez dirudi balizko kanibalek liburu horretan erakusten zaigun moduan jardun behar zutenik, alegia, etsaiaren haragia dietaren zati garrantzitsu eginez.

"...kanibalen eta basatien eskuetan erortzea, ahuntza edo dortoka bat banintz bezala harrapatuko baininduten, eta ni hil eta irenstean ez bailukete pentsatuko, nik usoa edo kurlinka janda egingo nukeen lege haustea baino handiagoa egingo zutenik"[5]

Honetan lar luzatu gabe, esan badirudiela antropofagia mundu zabalean izan dela, kultura askotan esan nahi da, baita Europan ere. Modu erritualean, ostera.

Nolanahi ere, europarren artean zabaldu zen kanibalismoak irudiak badu alderdi jakingarriagorik.

Itsaso urrunak, mundu berriak eta euretako herriak *ezinbestez* kolonizatu eta zibilizatu beharrekoak zirela justifikatu beharra sortu zen, Colonek Ameriketan oina pausatu eta kasik batera. Irakur, bestela, haren bidaietako kronikak. Eta horretarako zein aitzakia hoberik herriotako batzuk behintzat kanibalak zirela ziurtzat ematea baino? *Robinson Crusoe* eleberria prisma honexetatik irakur daiteke, interpretazioa lar behartu gabe interpretatu ere. Ostiral pertsonaia kanibala da eta, Robinson ugazabaren lehenengo zeregina esklabo lotu berriari grina hori ahaztaraztea du bere lehenengo zeregin. Zibilizatu egin behar du, zotz!, zibilizatu behar duenez. Europarren funtzio historikoa, zinez, mundua muturrik mutur zibilizatzea. Jakina, ustezko zibilizatze prozesuaren azken helburua haietako aberastasunak ustiatzea zen. Eta blaust, zibilizatu beharreko haiek kolonizatu bihurtu ziren.

Bada, metropolien zeregin historikoa zertan zen erakusteko edo, metropoliotako jendeei itsasoa izuen eremu legez erakutsi beharra zegoen, jendeok ulertu beharrekoa uler zezaten. Piztien pareko gizakiak zibilizatzen ari zirela, alegia. Horrexetan saiatu ziren esploratzaileak, ustiatzaileak, kolonizatzaileak. Hots, zibilizatuak denak. Eta itsasoan izuera guztiak kabitzen ziren, itsasoa ezezaguna zen heinean. Kanibalismoa ere tartean. Kanibalismoaren aipatze hutsak halako izu itzal bat hedarazten baitu edonoren baitan. Pentsa, bada, *Essex* ontziko gizonengan zein izu-laborri eragin bide zuen hurbileneko irletan kanibalak zirela aditzeak. Bada, oharron ostean, itzul gaitezen 1829ko azaroko egun hartara, txalupetan ziren *Essex* ontziko gizonen artera. Benetako izugarrikerien bila.

Gosea eta asea

Essex baleontzia hondoratu zeneko lekutik *Zibilizazioa*ren lehorralde hurrena Txilekoa zen. Azaroko egun hartan zeuden koordenadeta-

tik hiru mila miliako tartean. Kapitainari zegokion erabakia egitea. George Pollard izeneko gizon hark *Zibilizazio*ra jotzea hobe zela iritzi zion. Bada, halaxe hasi zen itsasoko gertaerez kontatu ahal izan den mentura zorigaiztoko eta itzelenetako bat.

Kapitainak berak hartu zuen lehenengo txaluparen agintea; bigarrena Owen Chase lehen ofizialaren mende utzi zuen; hirugarrena, eta azkena, bigarren ofizial Matthew P. Joy delakoaren agindupean geratu zen. Txalupek elkarren begipetik aldendu barik nabiga zezaten agindu zuelarik, hantxe abiatu ziren bata bestearen abaroan hirurak. Koska itzelarekin, nolanahi ere. Nabigazio tresnarik txalupa birentzako baino ez zegoen eta, hirugarrenak tentuz nabigatu beharko zuen. Besteen bandatik lar urrunduz gero, agur. Etorkizun zutela hausnarturik, hiru gizon Ducie izeneko irlan geratu ziren eta, handik denbora batera salbatu zituzten. Beste denak berriz abiatu ziren.

Esan bezala, elkarren begipetik aldendu gabe nabigatu behar izango zuten, bestela akabo. Gertatu ere halaxe gertatu zen, ostera. Aldendu egin ziren. Hala bada, hiru txalupek zeinek bere aldetik joz joan ziren galtzen. Biren berri badugu. Halako batean beste bien bistatik galduta, hirugarren txaluparen berri ez zen harrez gero inoiz jakin. Beste biez dakigunak ileak lazten dizkigu, hau ere egia.

Ez jatekorik ez edatekorik eta itsaso zabalean galduta, jazoeren testigantza geratu zaigun txalupa bietako gizonek euretariko bat hilez gero, hori, besteen bazka izango zela erabaki zuten. Kanibalismoa, bai. Horrexeri esker salbatu ziren Pollard kapitaina eta beronen txalupako beste bat, izenez Charles Ramsdell. Haatik, bigarren ofizial Chaseren txalupan erabaki hori baino beste are gogorrago bat egin zuten; euretariko bati heriotza ematea, besteen bazka izan zedin, zorigaiztokoa nor izango zen zotz ala motz jokatuz. Eta hori jandakoan salbatuak izan ezean zozketa-mozketa harekin segitzea. Kanibalismo hotza. Halaxe salbatu zen Chase bera, eta beste gizon bi. Bat, *Essex* baleontziko gazteena, gorago aipatu den Thomas Nikerson.

Nikerson eta Chase, ez bata eta ez bestea, ez ziren idazleak. Bizi izandakoa idazteko premia bizi izan zuten, ostera. Nikersonek, arima zama hartatik arintzeko premia hutsagatik, agian horrexegatik. Chasek, bere portaera zuritzeko, nonbait. Honek ere, Nikersonek legez, bera baitako pisutik zerbait kentzeko premia ukan bide zuenik ukatu barik, jakina. Biek ere biek idaztea terapia den aldetik erabili zuten, alegia.

Bada, gazteleraz duela gutxi argitaratu dira gizon bien izkribuak, liburu bakarrean, *Essex* baleontziarekin kasuari buruzko beste testu laburragoekin batera. Liburuaren titulua, *El desastre del Essex, hundido por una ballena*[6]. Bada, hurrengo urteetan izango zuen garrantziagatik, Chaserena aipatu behar da, hondoratzetik urtebete igaro orduko argitaratu baitzen horren egunkaria.

Tabua

Idazle profesional jardun nahi eta azkenean erabat halakoa izatera iritsi ez zen Herman Melvillek (1819-1891), *Moby Dick* liburuan, *Essex* ontziaren kasua ez ezik Chaseren oroitzapen liburua ere aipatu zuen[7]. Ezagutu egin baitzuen Chase bera. Eta baita haren memorien liburua ere. Eskuratu zuen alean oharrak idatzi zituen, aipatu *El desastre del Essex* liburuan bildurik direnak. Haatik, garai hartako balearen ehizaren entziklopedia den *Moby Dick* horretan, ez zuen jaso hondoratzearen ondorengoa. Ez zuen *Essex*eko gizonen kanibalismoa aipatu. Zergatiaz ez dakit ezer. Susmoa badut, ostera.

Moby Dick liburuko pertsonaia den Quiqueg delakoari narratzaileak —Ismael— behin eta berriro *kanibal* irizten dio eta, kanibalismoaren berri bazuen, bai, Melvillek. Liburuan hogeita hamabi aldiz aipaturik dira *kanibal* eta *kanibalismo* hitzak, bata nahiz bestea. Bada, *Essex*en kasua dela eta, tabu kontsideratu bide zuen zuri zibilizatuak elkar jate horretara iritsi ahal zirela aipatzea. Iritsi egin ziren, ostera. Eta berak, ezkutatu egin. Kanibalak besteak ziren. Kolonizatu beharreko haiexek hain zuzen. Begira bestela *Robinson Crusoe*ren kasuari.

Labur, Herman Melvillek ez zuen memoria liburu gogoangarririk idatzi. Idatzi zituen, bai, bidaietako liburuak, edo halakoxetzat jo litezkeenak, baina ez bereziki bere literaturarekin zerikusirik zuenik, salbuespenen batekin. Haatik, beste batzuenak baliatu zituen, bere memorien multzo handi batekin batera *Moby Dick* idatzi ahal izateko. Izan ere, *Moby Dick* dateke Melvilleren memoria liburua.

Zeren eta, zer da *Moby Dick*? Gorago bidenabar aipaturik utzi dudanarekin bat, balearen ehizaz eta ehizaren historiaz XIX. mendearen erdialderaino jakin zitekeen guztiaren tratatu entziklopedikoa da liburua. Hori hasteko. Gero eleberria ere bada, bere pertsonaiak, bere haria, bere korapiloa eta bere amaiera dramatikoa duena, irakurleari horiek denak balea zuri eta, beraz, misteriotsu baten ehizaren kariaz emanak datozkiolarik. Herman Melvilleri halako liburua paratzea nondik nora otu ote zitzaion eta, dudarik ez dago; nabigazio egun luzeetan mamitu bide zuen proiektua. Eta horrexetara isuri zituen bere oroitzapenak, honetan ere ez da zalantza izpirik. Beraz, *Moby Dick* dugu Herman Melvilleren memoria liburua. Horrez gero soberan leudeke egilearen oroitzapen liburuak. Baleontzietan eta besteetan ibili zela jakitearekin nahikoa kasik. Biografia laburretan diren datuekin nahikoa, bai. Beste dena, bere entziklopedian dago eta, zertarako memoriak.

Haatik, bada Herman Melvilleren liburuen artean oroitzapen liburutzat jo daitekeen eta *Moby Dick* eleberriarekin zerikusirik duelakoan nagoena. *The Encantadas* da liburuaren izena[8].

Laburra da *The Encantadas*. Gaztelerazko edizioan ehun bat orrialde du. Bere laburrean, ostera, argigarria da. Herman Melvillek irla horietan sentitu izan zuena itsasoz itsaso nabigatzean sentitu bide zuenaren guztiz antzekoa izan zelakoan nago. Harridura, lehenik eta behin. Eta galdera, bigarrenik. Harridurak dakarkion galdera. Jainkoaren —bere hitza da— proiektuaren nondik norakoaz hain zuzen. Pinguinoak ikustean egiten duen galdera. Hain dira horiek, gogoeta egiten du Melvillek, gure antzekoak ze, zein izan da jain-

koaren asmoa horiek sortzean. Eta gu geu, gizakiok sortzean? Gizakion patuaz erreflexiora eragiten dion galdera dakarkiote irla horiek idazleari. Erreflexio hori berori da *Moby Dick* handiaren atzean dagoen motibo nagusia. Beste memoria libururik idatzi beharrik ukan ez zuen idazlearen digante lana.

Joseph Conrad handiak idatzi zuenez, eta horretan Melvillerekin bat datorrelakoan nago, idazle jakin baten memoriak beraren literatur lanak dirateke. Hala eta guztiz ere, delako idazlearen zale garenok horren bizitzaz jakin nahi izaten dugu, kasik auzokideek elkarren bizitzaz beste, ea daturen bat gure jardunaz argitasunen bat ematen digun edo, besterik gabe, mitomaniak guregan ere eragina duelako, hobe ez. Horretara, Conrad berak amore eman zuen, eta bere gomutekin hiru liburu idatzi.[9]

Bestela, nago idazlearentzat benetako memoria liburu interesgarriak, Chassek eta Nikersonek idatzitakoen antzekoak dira.

Burua sendatu beharrari erantzunez idatziak, fikzioak ezin eman dezakeen elikagaia ematen digute. Aldian-aldian giza kondizioaz erreflexionatu behar dugularik, Chassek eta Nickersonek gogora ekartzen digute denon baitan datzala gizajalea, erne ez bada ezta lo ere, zorigaiztoko gosetearen zain. Herman Melvillek ez zigun berri latz hori helarazi nahi izan. Haatik, *Moby Dick* irakurtzen amaitutakoan ekin *El desastre del Essex, hundido por una ballena* irakurtzeari. Hori ere amaitzean berriro *Moby Dick* irakurtzen hasteko gogoa sortu ahal dela jakinik ekin ere.

OHARRAK

1. Colon, Cristóbal; *Textos y documentos completos*, 78. or., Alianza Editorial, Alianza Universidad, Madrid, 1982.
2. Montaigne, *Entseiuak 1*, Gizajaleez, 181. or. Klasiko Unibertsalen Bilduma, Bilbo, 1992.
3. Shakespeare William, *The Tempest.*
4. Defoe, Daniel, *Historia general de los robos y asesinatos de los más famosos piratas*; Valdemar, Madrid, 1999.
5. Defoe, Daniel; *Robinson Crusoe*, 254. or.; Ibaizabal, Euba, 1997.
6. Chase, Owen; Thomas Nikerson; *El desastre del Essex, hundido por una ballena*; Alba Editorial, Barcelona, 2003.
7. Melville, Herman; *Moby Dick*; 239. or.; Planeta, Barcelona, 2003.
8. Melville, Herman; *Las Encantadas*; Mondadori, Madrid, 1992.
9. Joseph Conraden memoria liburuak: *El espejo del mar* (Hiperión, Biblioteca del mar, Barcelona, 1991); *Crónica personal* (Editorial Alba, Barcelona, 1998), *Notas de vida y letras* (Ediciones B, Barcelona, 1987).

FITO RODRIGUEZ

Idazle ikasketak Swanen bidean

"Il se peut que la critique de la philosophie, telle que Proust la mène, soit éminemment philosophique" **Gilles Deleuze** in *Proust et les signes*. PUF.1964.

Maisulana irakasle:

Gutxi dira, Marcel Prousten modura, idazle bihurtzen duen idazteko grinaren bidezidorra aztertzeko bere literatura osoa eskaini izan dutenak. Berak erakutsitakoa, ordea, baliagarri suertatu zitzaien, esate baterako, Samuel Becketti edo Gilles Deleuzi, zaletasunak zein zailtasunak idazlearen nahiz gogoetagilearen eraikuntzan zer-nolako oinarriak dituen azaldu ahal izateko. Izan ere, ba al dago ikasterik idazle bilakatzeko? Nondik abiatuta eta zeren bidez ikas daiteke idazkuntza literarioa? Eta, egitekotan, zeintzuk lirateke horrelako ereduak eta ibilbideak?

Hala *Irakurketaz* (John Ruskini eginiko itzulpenaren hitzaurrean) nola *Jean Santeuil* nahiz *À la Recherche du Temps perdu*[1] eleberrietan haiek dira jorraturiko gaiak, hurrengo lerro hauetan, gure neurrian eta gure beharretarako, ikergai hartu ditugunak.

Ez baita horren erraza idazketa ona eta txarra bereiztea. Proustek berak, adibidez, bere poltsikotik ordaindu behar izan zuen *À la Recherche du Temps perdu* horren lehenengo liburukiaren argitalpena Gallimardek kaleratzeko ontzat eman ez zuelako. Zenbait idazketan ongiaren eta gaizkiaren arteko desberdintasuna ez da hain argia, baina, hura kontraesana!, norberaren gustuko idazleen artean bereizketa garbia da oso.

Egia da estetika ezin dela argudiatu, baina argumentu edo gai batek begi bistan jar dezake idazlan on bat. Estiloak ere bideratzen du irakurketa jakin bat gustukoa izan ala ez. Eta, halaber, sentimen-

du onak nola ikas, edo zehatzago oraindik, nola irakats daitezke? Idazketak zenbat du sentimenduetatik jasoa eta zenbat, berriz, arrazoiaren bidetik eskuratua?

Ezin jakin, bere gordinean, baina, norbaiti nobela beltzak gustatzen bazaizkio etikoki edo estetikoki onak direnik esaterik ba al dago?

Jakin, badakigu, gauzak ez ditugula jotzen gustuz ederrak edo onak direlako, alderantziz baizik. Hau da, gustagarritzat hartzen dugun neurrian polit bihurtzen ditugula. Etikan eta estetikan. Beraz, bizitzan gustatzen zaigunaren irudia da estetika. Ez dugu, bada, jakintzaren arlo soltea, etikarekin batera doan jarrera baizik. Nolabait adierazia, ona denak ederra behar du. Baina, alderantziz ere esan genezakeen: bikaintasunak ez duela zerikusirik moralarekin, aitzitik, inor gustagarria izan daiteke eta, era berean, gaiztoa izan oso. Honela, etika eta estetika gauza bera ez baldin badira, ezaguera bat baino gehiago ditugu erakusgai eta adimen mota asko legoke. Hau da, hizkuntzaren trebezia duenak ez du matematiketan zertan eduki behar; gorputzez eta izaeraz kementsuena dena ez da, derrigorrez, espazioa antolatzeko gai izango; eta musikarako dohaintsua dena, berez, ez da izango, agian, bizitza kudeatzeko gauza. Eta, lehenengora itzuliz, adimen horiek lantzeko zer irakatsi beharra dago?

Prousten hezibide literarioa:

Ezaguera horiek guztiak irakatsi ezin baldin badira, beharbada erakustea bidezkoa litzateke. Zeren eta, ez dago ezaguera denak ezagutaraziko dituen irakaslerik, erakasle bihurtu gabe. Alde batetik, bizitzan garrantzia duen guztia norberak ikasi behar duelako, eta bestetik, norbere eta besteen onerako irakasten denean, besteari ebatsi egiten zaiolako ikasi ahal izateko aukera.

Baina, aldiz, ezer irakatsi behar ez dela esatea ez da zilegi. Besteak beste, hori ere ez baita posible, bizitzan ezin delako bizi ezer ikasi gabe. Areago, gehienetan, konturatu gabe ikasten ari gara, etengabe.

Korapilo honen berri ematen digu Proustek bere eskaintza literarioan. Hala *Irakurketaz* (John Ruskini eginiko hitzaurrean) nola *Jean Santeuil* nahiz *À la Recherche du Temps perdu* eleberrietan idazle bilakatzeko erakusketa hausnartua ematen digu. Irakasterik ez da-goena nola ikasten duten bere protagonistak dugu gaia eta, haren zehazkizunen azalpenaz gogoetatzen du literaturaren subjektuaz idatzitako saiakera bezain nobela diren maisulanetan.

Prousten pertsonaiek literatura maite dute eta behar bezala irakurri eta idatzi nahi izaten dute. Hala eta guztiz ere, desioa handia izan arren, ez bide dute hura erdiesterik. Eta gogo horri muzin egiten ez badiote ere, ezin dute idazkuntzarako beta eman. Ez omen dute horretarako denborarik baina, halere, idazteko grinak iraun egingo du, dena den.

Une jakin batean, ordea, idazteko itxaropena guztiz galdu duteneean, buruan ezertxo ere ez dutelarik, ideien elkarketa baten bidez, bizitutako egoera lasai batez gogoratzen dira eta, bizipena bera berreskuraturik, zertaz idazterik badutela argitzen zaie. Argi honek ezintasunaren leize-zulotik irteteko bultzada emango die eta, horrekin batera, idazten hasiko dira. Idazketa haiek, aldiz, ez dira izango bizitzan gertatutakoaren berri emateko, errepikatzeko besterik ez, birbizitutakoa era berri batez emateko baizik. Hortxe dago gakoa. Zeren idazketaren ariketaren bidez, literatura dela medio alegia, ezagutzeko modua ere lantzeko aukera irekiko dute eta.

Beste ildo desberdinetatik baina filosofiaren arloan, hura argituz aritu ziren M.Foucault[2], J.Derrida[3] eta G.Deleuze[4], ideien idazkuntza ikertzen, hain justu. Ideiak ez baitira asmakizunak ezta aurkikuntzak ere. Ideia ez da egiaren sinonimoa zeren norbanakoaren hautematetik datorren esperientzia paradoxala dugu ideien iturburua. Paradoxa, jakina den bezala, aurreiritzia, saiakerarako abiapuntua da hain zuzen. Kontzeptuak, ordea, Gilles Deleuzek zioenaren ildotik "gauzak, arloak, mugak, koloreak edo abiadurak izan daitezke"[5], ez daude inoren buruan filosofian baizik.

Aitzitik, ideia arazoaren muina dugu: buruhaustea bera. Hura oinarritzat hartzea da ezagutza helburua duen literaturaren egitekoa.

Idazkera ezagueraren bidea:

Baina horretarako arrazoiak ez du berezko baliorik. Ez eta dialektikak ere. Alderantziz, Prousten pertsonaiei berrikuntza idazteko aukera irekitzen zaie ezertaz pentsatzen ez dutenean. Eta pentsamendu berritzailea eraikitzea lortzen dute, metaforen bidez, errealitatearen deseraikuntza egin ondoren, idazketa dela medio, birsorkuntzari ekiten dietenean:

> *"El milagro de la metáfora como logos común que forja una identidad de lo que viene a ser la vinculación: huir de la descripción; acercar el trabajo del arte al trabajo del concepto: tal es la causa matriz final de la Recherche"*[6].

Ideiatik, bada, mezua, leloa edo esakuna eratorriko da, ariketaren muina. Eta honek, aurretik esan bezala, "bizitza mundanotik" eskuratu ohi ditugun adimenetatik at egotea eskatzen du. Ohiko irudikapen errepikatuetatik ateratzea ahal izatea da, beraz, literaturaren bidez pentsatu ahal izateko funtsezko baldintza. Platonek, kobazuloaren mitoan definitu zuen ezaguera alboratzea litzateke, bada, adimen hau lantzeko aukera bakarra:

> *"La inteligencia que el autor de la Recherche reivindica no es ni razonamiento lógico sin contenido patógeno, ni imagen como asténica representación. Se trata de la inteligencia como auténtica vida espiritual, es decir: como vinculación e implicación de todas las facultades (sensibilidad, imaginación, entendimiento y razón) en un acto de reconocimiento de lo auténticamente objetivo, y que es constitutivo de su objetividad como tal. Tal acto no es sino la propia Recherche, libro en el que el lenguaje se reencuentra a sí mismo, a la vez como ámbito o materia del que las humanas facultades extraen su savia y como señor que las forja"*[7].

Bizitzaren zentzua Swanen bidean:

Berau garatzeko hasiko da idazlanean testu joriak bezain desberdinak sortzen eta biltzen, Roland Barthesek esango lukeen bezala, baliagarria izango zaion neurrian, idazkera literaturatzat harturik.

Zeren, Ahurtin bizi eta zendutakoaren arabera, "testu guztiak dira, era berean, behin behinekoak eta betirako" (*Théorie d'ensemble*). Horregatik idazle bakoitzak hartu beharko lituzke bere testuak beste baten izkribuak balira bezala, erabiltzeko, aipatzeko edota berregiteko.

Literaturari buruzko gogoetak esanahien sistemaz hausnartzea eskatzen du, ezinbestean, hizkuntza baita, beti, gogoetagai dena. Arteak, baita literaturak ere, ez du ezer erakutsi behar ikusiezina azalarazi baizik. (*La littérature, aujord'hui*). Mota honetako idazkerak, Platonen harpetik kanpoko argitan oinarritzen dena, munduari berba eman behar dio.

Samuel Beckettek idatzitako *Proust*[8] hartan bere nitasunaz aritzeko bidea erakutsi zuen. Literaturaren bidezko ikerketa ere zertan datzan erakutsi zigun, zeren idazketa, horretarako bidea baita. Hori dela eta, 1938an kaleratutako *Murphy* eleberrian Spinozaren itzala nabarmena da, ezagutzarako adierazpen humoretsuaren aldarria. Geroko idazkiak, askoz zailagoak, ekimen honen konplexutasunaren berri ematen dute, inoiz ere etsi gabe. Prousten antzera, paragrafo luzeak, adjektiboak hirunaka... berrikuntza imitaziotik datorrenean, ezin da emankorra izan. Ez baitago eredurik, ezta norberaren aurkikuntzatik abiatzen dena ere. Saiakera da bidea, etengabeko sorkuntza adierazpenak munduaren berreskurapena dakarrelako. Eta irakurketa berri bakoitzak mundu berri bat irekitzen baitu[9].

Literatura Nobel Saria eskuratu zuen B. Pasternakek zioenez, "Historia ez du inork egiten, nola garatzen den ez da ikusten, belarra hazi egiten den bezala garatzen baita historia". Eta, beraz, istorioen bidez saiatu daiteke hausnartzen bakarrik.

Claude Mauriacek esan zigun: "Proust Picasso aurreko idazlea

da"[10], idatz dezagun Platon eta Picasso gainditurik, ustez bizitutakoa baina ohiko ez denari erreparatuz eta, koba-zulotik kanpo, begirada diferituari kasu eginez.

L'écriture et la différence testuan J. Derridak neografismo bat asmatu zuen: *différance*. Hitzaren bigarren e idaztearen ordez a izkiriatzeaz batera, berdin ahoskatu arren desberdin irakurtzen zela azpimarratu nahi izan zigun. Letra baten aldaketa dela medio, hain zuen, idazketak, bere mututasunean, baduela esaterik ahotsak ozenki adierazten ez duena. *Différance*, berez, ez da ideia bat, ezeren hastapenik, ezta kontzepturik ere... baina zerbait behar du izan, idaztea badagoenetik bederen.

Argelen jaiotako juduak zioskunez, *différance* latinetik (differre) eratorritako hitza dugu, alde batetik diferitua (denboraz atzeratzea) eta bestetik desadostasuna (polemos/diferentzia) ulertarazteko baliagarria. Idazketak, beraz, denboran nahiz iritzietan, ahozkotasunaren egunerokotasunak sortu ezin dituen eztabaidak plazaratzen digu. Edo, beste modu batez esanda, esaterik ez dagoena idatzi daitekeela, eta garrantzitsuena, erabilitako bi erregistro haien artean azaltzen den desberdintasunak mendebaldeko pentsamenduaren logofonozentrismoa kolokan jartzeko balio du. Baieztapen honetatik abiaturik idatzi zuen Derridak *De la Grammatologie*, azalean Heideggerren *destruktion* kontzeptuaren aurka (handik berak egokitutako "deseraikuntza") baina, funtsean, mintzaira monologikoan oinarrituriko filosofia klasikoaren eraikuntza agerian uzteko (*Le monolinguisme de l'autre*). Jardun horretan aurkituko du bestearen munta (*Altérités, L'oreille de l'autre, Pysché. Inventions de l'autre*) eta abegikortasuna aldarrikatzeko premia (*Cosmopolites de tous les pays, encore un effort!*) baina, berriki hildako pentsalaria ez zen inolaz nihilista eta, ustezko deseraikuntza, metodologia baino gehiago, Prousten antzera, pentsamendua irakurtzeko nahiz sortzeko bide bat besterik ez da.

Zeren, pentsatzeko darabilzkigun hitzak ez baitira gureak ez eta oraingoak ere, bakoitzak bere historia duela eta, beraz, gure esana,

lehenaldiko bezain orainaldikoa den neurrian, dugun oraina ulertzeko ahalik eta hizkuntza adierazgarrienik behar dugu. Une eta toki guztietarako balio ez duelako, hain justu.

Le monolinguisme de l´autre argitaratu zuenean (1996an) telebista eta psikoanalisia kritikatu zuen modu bertsuan, hizkuntzan betidanik eta betirako aurkitu daitekeen betiereko esanahiaz trufatu zen. Baldin eta europar etnozentrismoaren eraginez idazkera on bat bada, adierazitakoa eta adierazlearen arteko harreman zehatza emateko gai dena, Derridaren postura, Proustena bezala, eta unibertsalkeria platonikoen aurka, idazkera gaiztoaren aldekoa da: desadostasunak eta desberdintasunen bidez (*différance*) gogamena landu nahi duenaren aldekoa. Gogoetarako bide hori literatura litzateke. Zertzeko bidea, berriz, deseraikuntza delakoa. "Ez dago *différance* bestea ez badago, bestea ez da izango berezkotasunik gabe eta ez dago berezkorik oraina zein espazio zehatzez kanpo" zioen.

Bizitza ikasketa bezala:

Edonola ere, nago, egun hitza langaitzat dutenen artean, irakasle edo idazlea dela, ezin dela bereizketa handirik egin zeren, P. Zumthorek adierazi bezala, komunikazio garaian aspaldi ari baikara bizitzen, eta horretan, pausatu beharreko kontraesana bizitzan zein literaturan aurkitu daitekeen errepikapenaren eta desberdintasunaren artekoa da[11]. Horixe ikertzeko hasi zen Prousten pertsonaia izenkideak (Marcel) oroitzapenen bidez bizitutakoa gogorazten, horretaz ikertzeko, idazteko eta, finean, ikasteko[12].

Artista edo sortzaile izanik ere, idazten hasiz gero soilik ez da inor idazle bihurtzen, baina ustezko berdintasun hori: idazlea *versus* irakaslea, azaleko kontraesana besterik ez da. Galdera beste bat izan beharko luke: sortzaile izateko nola ulertu beharra dago errepikapena eta diferentziaren arteko harremana?[13].

Pierre Klossowskik erakutsi zigunez[14] berbak nahiz izkribuak bilakagai dira.

Ez baitago berrikuntzarik gabeko errepikapenik ez eta irakaspenik. Eta, azkenik eta gero, irudikapenik gabe, sentitzea, pentsatzea eta adieraztea kimera hutsa izango zelako[15].

Idazten ikasteko eredurik ez badago ere eta bakoitzaren berrikuntza zertan datzan jakiteko norberaren ikerketa egitea ezinbestekoa izan arren, Prousten adibideak, ikasketa ilunez harago, ahalik eta hoberen idazteko desira iraunarazteko eta idazkeran saiatzen aritzeko nondik norakoa erakutsi zigun, Swanen bidea.

OHARRAK

1. Proust, M. (1999). *À la Recherche du Temps perdu*. Galimard. Lehenengo liburukia, jatorriz, 1913an. Gainerako hamairuak 1918tik 1927ra. Jean-Yves Tadiéren berrikusketa argitarapena da Galimarden "La Pléiade" sailan egun oinarritzat hartzen dena.
2. Foucault, M. (1986). *La pensée du dehors*. Éditions fata morgana.
3. Derrida, J. (1979). *L´Écriture et la Différence*. Seuil
4. Deleuze, G. (1997). *Différence et Répétition*. Puf
5. Boutang, P.A. (1976). *L´Abécédaire de Gilles Deleuze*. Montparnasse.
6. Gómez Pin, V. (1985). *Marcel Proust.El ocio y el mal*. Montesinos. 31.or.
7. Gómez Pin,V. Ibidem. 48. or.
8. Beckett, S. (1992). *Poética*. Edicions 62.
9. Petit, M. (2002) *Éloge de la lecture*. Belin.
10. Mauriac, C. (1969). *L´Alitterature contemporaine*. Albin Michel.
11. Zumthor, P. (1985). *"Ahotsaren iraunkortasuna"* in Unesco Albistarian 9. 5.or
12. Rodriguez, F. (2006). "Liburuen xarmaz galdetu eta galdetu (Prousten bidea)". *Barnegats 12*. EIE.
13. Rodriguez, F. (2005)."Asteasuko Irazuren berbak eta izkribuak " in XXII. Galeusca. AEC.
14. Klossowski, P. (1994). *Un si funeste désir*. Galimard.
15. Deleuze, G. (2002). *Spinoza et le problème de l´expression*. Minuit.

Txosten monografikoa: Egunerokoak eta memoriak

Vicente Huici

Jerardo Elortza

VICENTE HUICI

Eguneroko eta Dietarioak: egunez eguneko imajinarioaren idazkera esparru literarioan[1]

Mertxeri, Maiteri

"Gaur, Epaillaren azken eguna, egunaldi ederra eta berririk ez"
(Fermin Irigaray, *Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40)*

1. Egunerokoak eta dietarioak autodiegesiaren munduan: zenbait ezaugarri.

Egunerokoak eta dietarioak aipatzen ditugunean autodiegesi esparruan sartzen gara, hau da, autonarrazioaren munduan. Autonarrazioak forma ezberdinak har ditzake eta, behar bada, ezagunenak autobiografia eta *oroitzapenak (memoriak)* dira, formazio-eleberriak aparte lagata (*bildungsroman* edo *autoficcione*: Puertas Moya, 20032).

Esparru honetan eguneroko eta dietarioek oso formalizazio literario berezia eratzen dute, alde batetik eleberriak suposatzen duen konbentzio literariotik ihes egiten dutelako, eta, bestetik, onartu egiten dutelako ondoko genero literarioetan disolbiltzen den narratibitatearen haria.

Berezitasun honetan oso paper emankorra dauka idazleak, narrazioaren objektua bere bizitza delako, honek inplikazio filosofiko, soziologiko, estetiko eta antropologikoa duelarik.

Honela, filosofiaren ikuspegitik lan autodiegetiko mota hauek *subjektu* baten bizipenen agerpen formalizatuak dira. Honek esan nahi du eguneroko edo dietarioa idazten duenak idazterakoan bere *gizabanako*aren egoera utzi eta bere bizitza aztertzeko tresna egoki bat edukitzea ahalbideratzen duela (Foucault, 1990).

Prozesu horretaz, eta ikuspuntu sozio-historiko batetik, batzuek

defendatu dute eguneroko eta dietarioen bitartez *ni*-a eraiki egiten dela, oso ni berezi bat hain zuzen ere: *ni burgesa* (Didier, 1976; Lejeune, 1996), baina, beharbada, *ni* guztien jatorria. Zentzu honetan agertzen den *subjektu*aren denboratasuna oso urrun dago edozein Historiaren denboratik, Historiaren denbora *gizabanako*aren denbora izanik (Gurvitch, 1969). Beste alde batetik, eguneroko eta dietarioak erreferentzia garrantzitsu dira, oroimenaren zenbait gizarteeremu bermatzeko ere (Halbwachs, 1994).

Estetikaren ikuspegitik, berriz, eguneroko eta dietarioek hustuketa sakon bat proposatzen dute gure kulturan dagoen oinarri trajikoaren aurrean, lan autodiegetiko hauek azpiko trama trajiko barik erreflexiorako bide bat gauzatzen dutelako. Izan ere, Harreraren Estetika ikuspuntutik, eguneroko eta dietarioek analogian oinarritutako enpatia eskaintzen dute, interpretazioak egiteko moldeak gainditiuz.

Azkenean, antropologiaren ikuspegitik, eguneroko eta dietarioek egituratzen dutena askatasun praktika bat da. Sormen praktika bezala, sormen praktika hizkuntzan, generoa genero artekoa izanik. Eta orduan Aristotelek bere *Politikan* gizakia definitzeko egindako proposamena —*zoón ejón logón*: lengoiadun animalia—, gizatasuna indartzeko aukera bat bihurtzen da. Aukera erraza eta samurra.

2. Egunerokoak eta dietarioak: ezberditasun oinarrizkoa.

Ezberditasun oinarrizkoa nabari daiteke eguneroko eta dietarioen artean, nahiz eta biek hartu egilea eta bere bizitza erreferentziatzat: egunerokoetan ikuspuntu subjektiboa nagusitzen da, dietarioetan, aldiz, egilea kanpoko objektibitaterantz bideratzen da.

Egunerokoetan egilearen ikuspuntua da inportanteena (Didier, 1976). Zentzu honetan, egunez egun munduan pasatzen dena idatzi beharreko suertatzen da, egilearentzat emankorra baldin bada. Horietakoak dira, Virginia Woolfen (1994) edo Franz Kafkaren (1975, 1983) kasuak.

Dietarioetan, ordea, idazten duena desagertu egiten da, eta berari pasatzen zaiona idazteko aitzakia hutsa besterik ez da. Dietarioegilea elkarren segidan deskribatzen den munduko leku ezberdinetan kokatzen da eta erromeria diskurtsibo horren erdian agertzen da enpatia hemen, hor, han edo hamar orrialde pasatuz gero. Horregatik mota honetako idazleak batzuetan oso urrunekoa ematen du, beharbada ez gizatiar: holako irudipen bat sortzen zaigu Ernst Jünger (1992, 1995) edo Josep Pla (1965, 2001) irakurtzen dugunean.

Dena dela, egia da zenbait idazlek ez duela ezberdintzen egunerokoa eta dietarioaren artean. Idazle horiek proteikoak dira eta kasu gehienetan ezin da bere lan autodiegetikoa eta fikziozkoa bereizi (Kohan, 2000). Adibide nabariena Miguel Torgaren lana dugu: Adolfo Correia da Rocha medikuak idazten duen eguneroko bat Miguel Torga izenordearekin, eta eguneroko hori da bere lan narratiboaren (Torga, 1937) oinarri emankorrena.

3. Egunez eguneko imajinarioa.

Dena dela, nahiz eta egunerokoak eta dietarioak ezberdinak izan, lan autodiegetiko hauek erreferentzia amankomun bat daukate: egunez eguneko denboratasuna.

Honela, eguneroko edo dietario bat ezin dugu berrezagutu ez baldin badugu ikusten egunez eguneko erreferentzia tenporal hori, ezdenboratasuna ezinezkoa izanik: horregatik da, hilabetearen eguna —edo beste denbora-erreferentzia bat antzekoa— klabea halako idazkietan.

Baina denbora-erreferentzia hau ez da kokatzen Historiaren erregimen batean: kronifikatzen dena ez du aldez aurretik aurreiritzi batek zapaldu. Historiagileek proposatutako denboratasunari, nahiz eta bertan batu gertaerak *"argi zuri, bateratua eta bortitzaren azpian"* —Gurvitch (1969)—, ez dagokio eguneroko eta dietarioen denboratasuna. Eta halako menpekotasunaren bat aurretik aurkitzen bada izango duguna ez da izango eguneroko edo dietario bat,

eleberri edo Historia bat baizik (horretaz ikus: Huici Urmeneta, 2006).

Horregatik, denboratasun markatu honetan, egunez egunekoa da hari inportanteena. Baina, zer da egunez egunekoa? Egunez egunekoa da historikoa ez dena (Heller, 1972). Hain zuzen ere, egunez egunekoaren ezaugarria bere ibiltzea da, halako joan-jina, bere pasaera errepikakor edo aldakorra. Eta egunez eguneko honetan, dago eguneroko eta dietarioen lekua, egunez eguneko imajinarioa erakusterakoan, imajinario hori hain berezia izanik.

Berezia, bai. Alde batetik bere esparruan irudiak (bisualak, baina baita ere usain, entzun, uki eta gustuzkoak) ordena barik nahasten direlako, eta inteligentzia aparkatu behar delako ezaugarri aleatorio hau ateratzeko, honetaz izkiriatzeko. Berezia, beste alde batetik, ezaugarri aleatorio hori irudi konbinaketa bat egiteko aukera delako, hau da erreflexio bat egiteko irudiekin; inteligentziak ematen dituen kontzeptuak aparte lagatzen dituen erreflexio bidea.

Azkenik, egunez eguneko imajinarioaren ezaugarria amoralitatea da. Duda barik egunez eguneko irudien konbinatoria egiten denean, hainbat pauta atera daiteke bizitzan zerbait egiteko, gehienez analogiaz, baina egunez egunekoak daukan distantziak (Kosij, 1967; Lefebvre, 1958) ez du permititzen oso ondorio emankorrik ateratzea. Horregatik, batzuetan eguneroko eta dietarioek ematen dute mundutik zeharo apartekoak, batetik kanpoko erreferentziarik onartzen ez dutelako, bestetik hartzen dituzten erreferentziak oso partikularrak direlako: zaila da proposamen moralak ateratzea ilunsenti bati begiratzetik, kafearen usainetik, itsasoaren marmarretik edo Cavafisen poema batetik: *"Celebración y testimonio de los trabajos y los días —testimonio de los días iluminados y de los días de sombra—, de la lectura de esas páginas que nos abren puertas, nos muestran caminos nuevos, hitos de intuiciones y perplejidades, de lo que uno ve, adivina o sospecha en torno suyo con menos ironía y más distancia de la que quisiera..."* (Sánchez-Ostiz, 1993, 12).

4. Egunez eguneko imajinarioaren forma.

Baina egunez eguneko imajinarioa bizipenetik eskarmentura pasa dadin formalizazioa da beharrezko: forma gabeko ezer ez da existitzen ez guretzat, ez besteentzat. Batzuetan esaten da baten batek nobela bat idatzi duela bere bizitzarekin. Baina hori, bistan da, ez da egia: gauza bat baita bizipenak izatea eta beste bat, zeharo ezberdina, nobela bat edo beste *idaztea.*

Orduan, bide hoberena eskarmentuak taxutzeko formalizazioa da eta formalizazio mota bakoitzak behar du bere ahalegina: *"Écrire deux heures par jour, génie ou non"* esaten zuen Stendhal-ek (1873). Hau ez bada onartzen, sartzen da ezintasun bide inkontziente eta tolesgabe batean, nondik *lletraferit*-koek ez duten lortzen formalizazioa, hain justu jainko edo musa batek emana dela eta zerutik datorrela suposatzen dutelako. Puntu honetan beharrezkoa da idazketa autodiegetiko honen idazlearen konpromiso gogotsua aipatzea; libre hartutako konpromisoa, idazteko duten konpromisoa: *"Escriure quan botem del llit als matins santifica cada dia, perquè des d'aleshores res de verdaderament maligne podria ferir la vida. Quatre paraules, una plana, una frase..."* (Puig, 1991, 115-6)

Eguneroko edo dietarioa idazten duenak badaki bere oinarrizko materiala egunez eguneko imajinarioa dela. Eta badakigu egunez eguneko imajinarioaren formalizazioak eramaten duela beste genero literario batzuetara —nobela, narrazioa, saioa— baina ezaguna da eguneroko edo dietarioa idazteak bideratzen duela moldatze berehalako bat imajinario eta espresioaren artean.

Moldatze hori, berriz, gauzatu dezakete erregistro literario ezberdinek: poesia, bai bertsoetan, bai prosan; aforismoa; narrazio laburra; edo bizpahiru lerroko saio bat elkarrizketa edo irakurketa batek iradokia. Ondorioa argi eta garbi dator, izan ere *"un genere letterario che in questo modo non poteva risultare più híbrido"* (Agazzi-Canavesi, 1992, 9).

Ikusi dugunez, eguneroko eta dietarioen formalizazioa genero-

artekoa da, egunez eguneko imajinarioaren ezaugarri aleatorioaren ondorioa izanik. Honetatik sortzen da zailtasuna idazketa autodiegetiko mota hauen obrak sailkatzeko. Béatrice Didier-ek (1976, 193), esate baterako, azpimarratzen du genero *en-train-de* dela, beste gauza bat izateko dela: *"un texte engendrant d'autres textes, une genèse permanente"*. Eta Didier-en iritziaz adibide on bat dugu Leonardo Sciasciaren (1979) egunerokoetan, non agertzen diren bere eleberriei buruzko ideia, planifikazio eta iruzkin anitz.

5. Egunerokoak eta dietarioak esparru literarioan.

Zaila da eguneroko eta dietarioak *esparru literarioan* kokatzea ere, esparru hori gizarte-zientzietako ikuspuntutik aztertzen bada. Genero genero artekoak direnez, beste kasuetan erabiltzen diren neurri-metodoak —hala nola merkatuaren dimentsioa eta kritika espezializatua (Bourdieu, 1992)— ezinezkoak edo gutxienez problematikoak bihurtzen baitira.

Kasu honetan gelditzen den bailabide bakarra *idazleraren izena* da. Baina izen balioduna izateko, egileak bi baldintza bete behar ditu Lejeunen arabera (1996): alde batetik ezaguna izatea idazle bezala, gutxienez erreferentziazko beste liburu bat argitaratua izana; eta beste aldetik, deitzen den *paktu autobiografikoa*n parte hartzea eta irakurlegoarekin konprometitzea, hau da, eguneroko edo dietarioan esaten dena ez dela fikzio bat frogatzea. Ez badira baldintza hauek betetzen ez du ematen *esparru autobiografikoa* esparru literarioaren barruan dagoenik.

Dena dela, Bourdieu soziologoarentzat idazlearen *indar soziala* —bere izen publikoari dagokiona— ez da nahikoa eguneroko edo dietario bat esparru literarioan barneratzeko, nahiz eta onartu halako testuak izan daitezkeela irakurlego konkretu bati dagokion *distintzio*aren irudi (Bourdieu, 1982). Talde ideologiko-sozialak ezberdintzeko edota bultzatzeko prozeduratzat hartzen bada distintzioaren mamia, kriterio hau garrantzitsua da perspektiba ideologiko

aurkakoen eguneroko edo dietarioak irakurtzen ditugunean. Kasu nabariak Gimferrek (1994, 1985), Jiménez Lozanok (1992, 1996, 2003) edo Sarrionaindiak (1985, 1988) idatzitako dietarioak.

Hain zuzen esparru literarioan benetan sartzeko, lan autodiegetiko hauek, beste lan kreatiboek behar dituzten baldintzak bete behar dituzte: argitaletxeak, kritika eta irakurlegoa. Eta baldintza hauek sortarazi behar dira eguneroko eta dietarioen egoera literarioa normaltasunean sartzeko.

Dena dela, eta Trapiellok (1998) komentatzen duenez, lan autodiegetikoko mota hauek gero eta gehiago irakurtzen dira, tradizio txikiagoa daukaten zenbait gizartetan edo hizkuntzatan ere (euskal kasuaz, ikus Urkizu, 1996-7), batzuentzat benetako literatura izateko baldintza izanik: "*Si en aquest país tinguéssim memorialistes -em permeto de repetir que no tindrem una autèntica literatura catalana, còmoda i confortable (les dues condicions bàsiques de tota literatura possible) fins que en tinguem...*" (Pla, 1992, 17, 236-7).

Gehitzen ari den garrantzia ulergarria da: eguneroko eta dietarioak egunez eguneko bizitzaz mintzatzen dira asmo sakonegi barik (saiakeran bezala), gehiegizko gorespen barik (poesiaren kasuan) eta tentsio trajikomiko barik (elaberrietan pasa ohi den arabera), (Romera et alii, 1993).

Funtsean, egunerokoak eta dietarioak agertzen dira egunez eguneko erregistro zuzen bezala, egunerokotasuna delarik alderdi garrantzitsuetako bat, bai gerla urtetan bai bakean, hirian, baserrian ala itsasoan.

OHARRAK

1. Esker anitz Tere Irastortzari egindako iradokizunengatik.
2. Ikus Bibliografia.

BIBLIOGRAFIA

- AGAZZI, Elena - CANAVESI, Angelo (1992) *Il segno dell´io. Romanzo e autobiografia nella tradizione moderna*, Campanotto Editore/ Università degli Studi di Pavia, Udine.
- BOURDIEU, Pierre (1982) *La distinction. Critique sociale du jugement*, Ed. de Minuit, Paris. (1998). *La distinción*. Ed. Taurus, Madrid.
- BOURDIEU, Pierre (1992) *Les règles de l´art. Genèse et structure du champ littéraire*, Éd. du Seuil, Paris. (1995) *Las reglas del arte (Génesis y estructura del campo literario)*. Ed. Anagrama, Madrid.]
- DIDIER, Béatrice (1976). *Le journal intime*. Ed. P.U.F. Paris.
- FOUCAULT, Michel (1990) *"Tecnologías del yo" y otros textos afines*. Ed. Paidós-ICE/UAB, Barcelona. (1989) *Résumé de cours*,1970-1982, Julliard Ed., Paris)
- GIMFERRER, Pere (1994) *Dietari (1979-1980)*, Ed. 62, Barcelona; (1985) *Segundo dietario* (1980-1982), Ed. Seix Barral, Barcelona.
- GURVITCH, Georg (1969) *La vocation actuelle de la Sociologie*, Presses Universitaires de France, Paris. (1950).
- HALBWACHS, Maurice. (1994) *Les Cadres Sociaux de la Mémoire* Ed. Albin Michel, Paris. (1925) (2004) *Los marcos sociales de la memoria*, Ed. Anthropos, Barcelona.]
- HELLER, Agnes (1972) *Historia y vida cotidiana*, Ed. Grijalbo, Barcelona.
- HUICI URMENETA, Vicente (2006) *Aproximaciones a la razón narrativa (Historia, Novela, Autobiografía)*, Ed. Bassarai, Vitoria-Gasteiz.
- IRIGARAY, Fermin (1993) *Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40*, isiltasunean mintzo, Pamiela Arg. Iruñean.
- JIMÉNEZ LOZANO, José (1992) *Segundo abecedario*, Ed. Anthropos, Barcelona; (1996) *La luz de una candela*, Ed. Anthropos, Barcelona; (2003) *Los cuadernos de letra pequeña*, Ed. Pre-textos, Valencia.
- JÜNGER, Ernst (1992) *Radiaciones*, Ed. Tusquets, Barcelona (1979) *Strahlungen II: Das zweite Pariser Tagebuch, Kirchhorster Blätter, Die Hütte in Weinberg (Jahre der Okkupation)*, E. Klett Verlage GmbH; (1995) *Pasados los setenta I*, Ed. Tusquets, Barcelona. (1982) *Strahlungen III Siebzig verweht I*, E. Klett Verlage GmbH
- KAFKA, Franz (1975) *Diarios (1910-1913)*, Ed. Lumen, Barcelona; (1983) *Diarios II* (1914-1923), Ed. Bruguera, Barcelona.
- KOHAN, Silvia Adela (2000) *De la autobiografía a la ficción*, Grafein Ed., Barcelona.
- KOSIJ, Karel. (1967) *Dialéctica de lo concreto*. Ed. Grijalbo, México. (1963) *Dialektika Konkretniho*.

- LEFEBVRE, Henri (1958) *Critique de la vie quotidienne*, L´Arche Editeur, Paris.
- LEJEUNE, Philippe (1996) *Le pacte autobiographique*, Ed. du Seuil, Paris (1975). (1994) *El pacto autobiográfico y otros estudios*. Ed. Megazul, Málaga.]
- PLA, Josep (1965) *El cuadern gris*, Ed. Destino, Barcelona; (1981) *El cuaderno gris*, Ed. Destino, Barcelona; (1992) *Obra completa*, 25 vol. Ed. Destino, Barcelona; (2001) *Dietarios(I) El Cuaderno Gris/Notas Dispersas*, Ed. Espasa, Madrid; (2001) *Dietarios (II) Notas para Silvia/ Notas del Crepúsculo*, Ed. Espasa, Madrid.
- PUERTAS MOYA, Francisco Ernesto, (2003) *La escritura autobiográfica en el fin del siglo XIX: el ciclo novelístico de Pío Cid considerado como autoficción de Ángel Ganivet*, Ed. Universidad de la Rioja, Logroño.
- PUIG, Valentí (1982) *Bosc endins*, Edicions dels Quaderns Crema, Barcelona; (1991) *Matèria obscura*, Edicions 62, Barcelona; (2001) *Cien días del milenio*, Ed. Península, Barcelona.
- ROMERA, José; YLLERA, Alicia; GARCÍA-PAGE, Mario; CALVET, Rosa (1993) *Escritura autobiográfica*, Visor libros, Madrid.
- SÁNCHEZ-OSTIZ, Miguel (1986) *La negra provincia de Flaubert*, Pamiela Arg. Iruña; (1987) *Mundinovi-Gazeta de pasos perdidos*, Pamiela Arg., Iruña; (1991) *La puerta falsa*, Los libros de la Pérgola, Bilbao; (1993) *Correo de otra parte*, Pamiela Arg., Iruña; (1995) *El santo al cielo*, Pamiela Arg., Iruña; (1998) *Palabras cruzadas (1995-1998)*, Las Tres Sorores-Prames, Zaragoza; (2001) *La casa del rojo (Diarios, 1995-1998)*, Ed. Península, Barcelona; (2004) *Liquidación por derribo- Diarios, 1999-2000*, Ed. Alberdania, Irun.
- SARRIONAINDIA, Joseba (1985) *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela-Soñua Arg., Iruña; (1988) *Marginalia*, Elkar Arg., Donostia.
- SCIASCIA, Leonardo (1979) *Nero su nero*, Einaudi editore, Torino (1984), *Negro sobre negro*, Ed. Bruguera, Barcelona).
- STENDHAL, (1973) Vie d´Henry Brulard, Ed. Gallimard, Paris (1975) *Vida de Henry Brulard. Recuerdos del egotismo*, Ed. Alianza, Madrid.
- TORGA, Miguel (1991) *A criaçao do mundo*, Publicaçoes Dom Quixote, Lisboa; (1999) *Diário Vols. I-VIII - Vols. IX-XVI* Publicaçoes Dom Quixote, Lisboa (1988) *Diario (1932-1987)*, Ed. Alfaguara, Madrid. (1996) *Diario II. Ultimas páginas (1987-199)*, Ed. Alfaguara, Madrid]
- TRAPIELLO, Andrés (1998) *El escritor de diarios*. Ed. Península, Barcelona.
- URKIZU, Patricio (1996-7) "Ni ez naiz nor, *No soy quien*. Notas sobre memorias, recuerdos, diarios y autobiografías", *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, V, 1996 y 1997. UNED, Madrid, 341-351 oo.
- WOOLF, Virginia (1994) *Diario íntimo III (1932-1941)*, Ed. Grijalbo-Mondadori, Barcelona. (1990) *A moment´s liberty. The shorter diary*, The Hogart Press, London.

JERARDO ELORTZA

Memoriak eta autobiografiak euskaraz: *1. Gerrari buruzko oroitzapenak. (Hurbilketa)*

1. Sarrera

Memoriak eta autobiografiak, oro har, ez dira oso estimatuak izan irakurle batzuentzat, sarritan berauek idatzi dituzten gizon-emakumeen bizitzen pasarte ezezagun, ilun edota diskutigarriak argitzeko baino gehiago horiek zuritzeko moldatu izan baitira. Alabaina, eta gehienetan bakoitzak bere opilari su egiten diola ukatu gabe, bada genero honetan hamaika bitxi literario eder, pertsona batzuen izaerari buruzko zertzelada interesgarriak ez ezik, gizarte eta garai jakin batzuen gaineko argibide bikainak ere eskuratzen dizkigutenak.

Ez dago asko arakatu beharrik literatura, kultura edo politikaren historian, euren buruaz idatzi duten pertsona ospetsu edo ez hain ospetsuen izenekin zerrenda luze samarra osatzeko. Aukera libre eta anarkiko samarrean banaka batzuk soilik aipatzearren, hor dira Julio Zesar, San Agustin, Marco Polo, Margarita Valois-koa, Retz kardinala, Saint Simon dukea, Rousseau, Jovellanos, Goethe, Chateaubriand, George Sand, Dostoievski, Isadora Duncan, Churchill, Trotski, Azaña, Anaïs Nin, Canetti, Viktor Kemplerer, Groucho Marx, Marcel Reich-Ranicki eta beste askoren memoria, autobiografia edo egunkari tankerako lan zeharo desberdinak.

Hurragora etorriz gero, hemen berton ere baditugu, bai, mende askotan horrelako zereginetan jardundakoak: euren bizitza osoaz, gehienaz edo zenbait pasarte luzez idatzi dute hainbat erdaratan (hebraieraz, latinez, gaztelaniaz) Tuterako Benjamin, Lope Garzia Salazarko, Iñigo Loiolako, Andres Urdaneta, Esteban Garibai, Katalina Erauso, Manuel Larramendi, Frantzisko Espoz Mina, Migel Unamuno, Pio Baroja, Indalecio Prieto, Toribio Etxebarria, Jose Mi-

gel Barandiaran, Justo Garate, Jose Antonio Agirre, Jon Idigoras, Xabier Arzallus edo Jon Juaristik, adibidez.

Eta euskaraz zer? Sarritan uste izan da genero hau, beste zenbait literatur esparru legez, oso gutxi landua izan dela gure hizkuntzan. Eta, egia esan, euskal literaturaren lehen mendeetan, erlijio-izkribu didaktikoek ia erabateko nagusitasuna zeukatenean, ez bide zuten orduko idazleek euren buruaz aritzeko beharrik nabaritzen. Gehienak elizgizonak izanik, premia larriagoak zituzten katiximak, sermoi-liburuak edota aszetika-tratatuak moldatzen. Gainera, orduko euskal irakurleria urriak, seguruenik, horrelako obrekiko gutiziarik agertzen ez zuelako-edo, argitaratuz gero, zorrez betetzeko lantegia izango zen hura. Alabaina, bertsogintza zaharrean zein berriagoan badira noizbehinka egilearen aldetiko barren-hustuketak, nahiz eta hauetariko laginak, gehienetan labur samarrak izateaz gain, ez diren askotan berandu baino ezagutu eta argitaratu.

Dena den, larregi pentsatzeke burura datozkidan banaka batzuk izendatu gura nituzke: hor ditugu, besteak beste, Erdi Aroko kanta zaharretan Milia Lasturkori ahizpak kantatu zizkion *erostak* edota Martin Bañez Artazubiagakoaren hilketa zela-eta sortutakoak (Mondragoe-Arrasaten biak); XVI. mendean, berriz, Etxepareren *Mosen Bernat*, Juan Perez Lazarragakoaren hainbat maite-kanta, edota Joan Amenduxeko iruindarraren *Hemen natza ortzirik* hunkigarria; XVII.ean Allande Oihenartek bere amoros ugariei egindako maitasun-agerpenak aipa daitezke, agian; eta salto handi samarra eginez, XIX.ean gogora ditzagun, adibidez, *Etxahun* koblakariaren oinaze, pena eta mehatxuak, *Bilintx* bertsolariaren nahia eta ezina, Jose Mari Iparragirre bardoaren atxiloketa eta nazioarteko ibilerak, eta Martin Larralde hazpandarraren *Galerianoaren kantuak*, Paueko presondegian onduak; eta zerrendatxo honi amaiera emateko, XX. mendearen hasierako hirukote bat: 1914-1918ko gerlan prusiarren preso egondako Batixta Borthiri-Sala larraintarraren bertso-sorta luzeak, Antonio Urbietaren *Nere sentimentua* eta honen anaia Jose Jua-

kin *Kaskazuri* oiartzuarrak bere buruari jarritako bertsoak, beharbada euskaraz egin den autokritikarik antologikoena.

Edonola ere, gurean XX. mendean, bigarren erdi-aldian bereziki, erruz gehitu dira prosazko autobiografiak eta memoriak; egunkari pertsonalak gutxiago. Han-hemenka begira hasi naizenean, uste baino material dezente gehiago eskuetaratu zait. Hori dela-eta, gerrarekin zerikusia duten euskarazko memoria eta antzekoei bakarrik helduko diet oraingoz. Memorien genero honi dagozkion gainontzeko arloak ukitzen dituzten euskarazko obrak ere pila polita osatzen ari dira, azkar eta etengabe emendatuz doana, eta horregatik hurrengo baterako uztea pentsatu dut.

Gerra zibilari buruzko erdal oroit-liburuetan dagoen bibliografia ezagunagoa da, jakina. Klasikoak bihurtu diren banaka batzuk gogoratuko ditut: Jose Antonio Agirreren *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* (Buenos Aires, 1943; euskarazko itzulpena orain-tsu agertu da); Jose Artetxeren *El abrazo de los muertos* (Zarautz, 1970; askoz lehenago bukatua egon arren, zentsurarengatik atzeratu zen argitalpena); eta diktadorea zendu zenean publikatutako Migel Amilibiaren *Los batallones de Euskadi* (Donostia, 1977); edota Manuel Chiapusoren *El gobierno vasco y los anarquistas. Bilbao en guerra* (Donostia, 1978). Alabaina, erdarazkoek beste zabalkunde eduki ez arren, euskarazkoak ez dira hutsaren hurrengoak, ezta gutxiagorik ere. Harrigarri samarra da, benetan, inguruan izan ditugun azken gerrek euskaraz moldarazi dituzten memoria-tankerako lanen kopurua eta sarritan kalitatea[1]. Gaia agortzeko asmorik gabe, eta hutsune asko izango direla konturatuta, hurbilketa bat egiten ahalegindukо naiz.

2. Gerrari buruzko oroitzapenak

Beste edozein gertakarik baino gehiagok gerrek eta hauek sortutako ondorioek idatzarazi dituzte memoriak. Euskal Herritik kanpora ere bai, baina gure kasuan era nabarmenagoan esango nuke. XX. mende

aurretik ez zen tankera honetako prosa-lanik euskaraz argitaratu, baina bertsoak, kanta-paperak eta antzekoak erruz zabaldu ziren alde bateko nahiz besteko berri emateko edo propaganda egiteko. Frantziako Iraultza garaian, esaterako, Salbat Monho eta Jean Robin apez lapurtarrek urte gatazkatsu haietako zenbait pasadizo eta ibilera xelebre kontatu zizkiguten, iraultzaren aurkako ikuspegitik, noski. Aldeko batzuk ere batu zituen Julien Vinson bibliografoak. Geroxeago karlista nahiz liberalek, sasoi hartako soldadu gehientsuenak euskaldun hutsak eta eskola gutxikoak zirela kontuan izanda, kanta-paper ugari inprimarazi zituzten, norberaren balentriak goraipatuz eta arerioaren akatsak salatuz. XIX. mendearen hondarrean Kubako gerra kolonialistak ere euskarazko bertso mordoa sorrarazi zuen, oso "patriotikoak" gehienetan.

Hitz-lauzko gerra-kronikak eta memoriak XX. mendearekin batera heldu zitzaizkigun. Zoritxarrez, hartarako aitzakiarik ez zen falta izan. Ipar Euskal Herriko hiritarrek bi gerra luze jasan behar izan zuten denbora gutxiren buruan: Gerra Handia edo I. Mundu-gerra 1914tik 1918ra eta II. Mundu-gerra 1939tik 1945era. Maila apalagoan bada ere, Indotxina eta Aljeriako gerrek ere inarrosi zuten Iparraldeko gizartea. Hegoaldeari dagokienean, aldiz, 1920ko hamarkadan Rif aldean piztu ziren borroka odoltsuek egoera latzak pasarazi zizkien hara derrigorrean eramandako soldadu gizagaixoei. Baina familia gehienetara ahaztu ezinezko erasana ekarri zuena 1936tik 1939ra bitarteko gerra zibila izan zen. Gatazka hauetako protagonista batzuek euskal letretan utzi zuten aztarna azalduko dut ondoren.

2.1. Iparraldeko euskaldunen gerlak

Edozein herritako parrokia inguruko hilerrian edo plazan ikus daitezkeen gerla-oroitarriei begiratuz gero, berehala konturatuko gara zenbat gazte hil zen Ipar Euskal Herrian XX. mendean Frantziaren aldeko gerretan: ikaragarri I. Mundu-gerran, askoz gutxiago II.ean eta bakarren batzuk Indotxinan eta Aljerian.

Gerra Handiari, 1914koari alegia, nahikoa hurbiletik jarraitu zion *Eskualduna* astekariak. Verdun aldeko frente beldurgarrian soldadu moduan ari ziren hiru Jean (Etxepare medikua, Saint Pierre apaiz irakaslea eta Elizalde apaiz erretorea) izan genituen Baionako euskal kazetara euren kronikak igortzen zituztenak. Azkenak, **Jean Elizalde *Zerbitzari***k, gerra bukatu eta urte askotara (1936-1937), *Eskualduna* berak eskatuta, papereratu eta publikatu zituen atalka orduko pasadizoak, *LVII.a gerlan* izenburuaz. Liburu bezala 1995ean argitaratu zuen Patri Urkizuk Alberdanian. Apaindura eta espantu gutxiko estilo soilduan jakinarazten dizkigu apaiz azkaindarrak 56 hilabete haietan, gehienak lubakietan iraganak, berak eta bere erreximendukoek (LVII.ekoek, alegia) eduki zuten bizimodu petral eta lanjerosa.

Alemanen kontrako bigarren gerratean ez zuten hainbeste ohorerik izan frantsesek. Hildakoak ere askoz gutxiago, jakina. Presoak, ordea, milioika: batzuk 1940ko debaklean atxilotuak; beste batzuk, gutxiago, erresistentzia-lanetan jarduteagatik espetxeratuak. Azken hauetako baten lekukotasun bizia irakurgarria da zinez: **Grégoire Joanategi** (1887-1967) Belokeko beneditarren *Alemaniara deportatua* titulua duena, alegia. "Orion" eta "Comet" sareen bitartez muga pasatu nahi zuten iheslariei babesa ematearren, atxilotu zituzten naziek monasterioko abata eta Aita Grégoire. Urte eta erdian Alemaniako Buchenwald eta Dachau-ko zigor-zelai famatuetan neke eta pena latzak pairatu behar izan zituen, eri eta hilzorian egon zelarik. Jatorrizko bertsioa frantsesez idatzi zuen Joanategik 1960an, Belokeko beste monje batek, Marzel Etxehandik, euskaratu zuen 1995ean Gure Irratirako eta liburu moduan Elkar argitaletxeak kaleratu zuen 2003an[2].

Aurreko gatazka bietan parte hartu zuten euskaldunek nahikoa edo oso "frantximant" agertzen baldin bazaizkigu, Aljeriako independentzia gerla luze eta zikinak zapore mingotsagoa utzi zien hara errepresio-lanetara joan behar izan zuten soldaduei. Hori sumatzen da **Txomin Peillenen** *Aldjezairia askatuta* (Hordago, 1982) eta **Xipri**

Arbelbideren *Gerla tresna bizidunak* (Elkar, 1986) lanetan. Peillenek 1961erako burutua zuen, berak dioen bezala, ipuin-azalez jantzita, Aljeriako iraultzan bizi behar izan zuenaren oroitzapenak biltzen dituen liburuxka hau, baina zatitxoren batzuk kenduta, ez zuen 1982ra arte publikatu ahal izan. Arbelbidek gerran zuzenean ikusi zituen ankerkeriak eta torturak salatzeaz gain, 1986ean Aljeriara egin zuen txango batetik ateratako inpresioak ere txertatzen ditu liburuan.

2.2. Anaiarteko gerra Hegoaldean

Afrikako gerraren inguruan (1920ko hamarkadan) bertsoak eta kanta-paperak kaleratu ziren, eta Kubakoak baino askoz kritikoagoak maiz, baina prosazko lanik ez. Handik urte gutxira Afrikan hasi baina penintsulara hedatu zen gerra zibilak, ordea, literatura ugari sorrarazi zuen, baina ez berehala. Hasiera batean *Lauaxeta, Basarri,* Juan Ezenarro, Joxe Mari Lopetegi edo Telesforo Monzonek gerraz idatzitako poemak eta bertsoak ez zuten ia zabalkunderik izan, hemen 1937ko udatik aurrera zeharo klandestinoak baitziren. Beste hainbeste esan behar da gerra ondoan Ameriketan edo Iparraldean Joseba Eizagirrre, Joseba Andoni Irazusta, Sebero Altube eta geroago Martin Ugaldek moldatutako eleberri eta ipuinez.

Azken hamarkadetan, zentsura-arazoak desagertu direnean, sarriago agertu dira 1936ko gerratik edan duten eleberri eta ipuinak: besteren artean, Salbador Zapirain *Ataño*, Martin Ugalde berriro, Juan Martin Elexpuru, Luis Mari Muxika, Patxi Zabaleta, Patri Urkizu, Koldo Izagirre, Ramon Saizarbitoria, Xabier Mendiguren Elizegi, Joseba Sarrionandia edo Bernardo Atxagak heldu diote hari horri. Oraingoan, ordea, gerran zuzenean parte hartu edo gatazkaren ondorioak nabarmen sufritu zutenen oroitzapenak dakartzaten lanak komentatu gura ditugu bereziki. Eta, egia esan, dagoeneko mordoxka bat argitaratu da, gehienak Franco hil ondoren, jakina. Horietako asko bertsolariek edo bertso-munduaren inguruan ari

direnek moldatutako autobiografiak dira eta berauek biltzen eta kudeatzen ez du lan makala bere gain hartu Auspoa liburutegiaren zuzendariak, Antonio Zabala jesuita eta euskaltzainak.

2.2.1. Soldadu eta gudarien oroitzapenak

Hegoaldean gerra-kontuak argi eta garbi aipatu zituen euskarazko lehenengo memoria-liburua **Sebastian Salaberria** oiartzuarraren *Neronek tirako nizkin* (Auspoa, 1964) izan zen. Gerran ibilitako soldadu arrunt baten ibilerak eta tragedia pertsonala kontatzen dizkigu liburu honek. Sebastianek oina galdu zuen Igorren frankistekin erasoan ari zela, baina bere anaia Kaximirok ere egun eta leku berean tiroka ziharduen beste aldetik. Aurretik, Araba eta Bizkaiko frentean makina bat aldiz buelta eman zien Sebastianek mendian aurkitzen zituen gudari askoren hilotzei, Kaximirorena ote zen frogatu guran. Kaximirok, berriz, handik hilabete batzuetara anaiak hanka non eta nola galdu zuen jakin zuenean, negarrari eman zion, Sebastian zauritu zituen balak berak tiratuak izango zirela esanez.

Sebastian Salaberriaren kontatzeko era xume eta jatorrak —bertsolari kastakoa izaki— arrakasta dezente izan zuen garai hartan. Argitaratu aurretik 1964ko *Agora*ren *Guipúzcoa* (sic) saria eman zioten, eta esan daiteke agertu berri zen Pello Errotaren alabak idatzitako bere aitaren bizitzaren historiarekin eta Salaberriaren autobiografia moduko honekin Auspoak gaur egunera arte iraun duen sail aberats bati ekin ziola: bertsolariek nahiz hauen inguruan ari diren lagun eta senideek moldatutako prosa-kontaera herrikoi bati, alegia. Ahozkotasunetik oso hurrean dagoen azaltzeko era honek ale ederrak eman ditu azken berrogei urte hauetan, horietatik asko oroitzapenen munduarekin lotura estua dutenak.

Alabaina, puska batean ez zen euskaraz gerra-pasadizo luzerik publikatu. Izan ere, Salaberriaren liburuan frankismoari eta gerrazaletasunari propaganda handirik egin ez arren, ez dugu ahaztu behar irabazleekin jardundako batek idatzia zela. Galtzaileek, euren

bertsioak ezagutarazteko, diktadorea hil arte itxaron behar izan zuten. Azken hauen artetik lau bertsolariren gorabeherak aukeratuko ditugu lehendabizi: Iñaki Alkain giputzarenak eta Balendin Enbeita, Basilio Pujana eta Faustino Etxebarria bizkaitarrenak.

Aita ere bertsolari ezaguna zelako, **Alkain gaztea** deitzen zioten urnietar honi. Bere bertsioa luzea eta osatua da, inoiz irudimen gehiegitxo ez ote duen pentsarazten badu ere. Hiru liburukitan atondutako *Gerrateko ibillerak - I, II eta III* (Auspoa, 1981) izeneko autobiografiak gudari gipuzkoar baten ibilbide klasikoa deskribatzen digu zehaztasun eta grazia handiaz: Donostia aldetik Ernio, Ondarroa, Gernika eta Elgetara; gero Legutioko erasoa, Kalamua, Saibigain, Gernika, Bizkargi, Artxanda; Bilbon preso hartu eta frankistekin hamaika borroka-leku eta penintsula erdia korritu behar izan zuen, azken fase hori oso gainetik kontatua baldin badago ere. Bitxikeria ugari datoz liburuan: esaterako, Basalgoko frentean behin baino gehiagotan bertsotan aritu omen zen gauaz, guda-lerroaren bestaldetik zegoen errekete amezketar batekin sesioan; baita geroago Valladolideko taberna batean ere Uztapiderekin euskaraz zein erdaraz.

Balendin Enbeita, *Urretxindorra*ren semearen *Bizitzaren joanean* (Elkar, 1986) autobiografiak zati handi bat eskaintzen dio gerrateko giro eta gertakariei. Bilbo jausi eta gero, lau urte igaro zituen muxikarrak beste hainbeste kartzelatan: Santoña, Gasteiz, berriz Dueson eta Puerto de Santa Marian. **Basilio Pujana** zeanuriztarra ere, Balendinen antzera, Errepublika-garaian EAJren mitinetan-eta kantatu zuelako, estu samar hartu zuten irabazleek eta kartzela nahiz zigorbatailoietatik pasatu behar izan zuen. *Deabruak ostutako urteak* (Sendoa-Auspoa, 1991) liburuan kontatu zizkigun gaztaroan "lapurtu" zizkioten urte horietan jasandakoak. **Faustino Etxebarria** dimoztarra, aldiz, ez zen hain politikoa, ezta gerrazalea ere. Hala eta guztiz, alderdi bietan borrokatzea tokatu zitzaion: Bizkaian Eusko Gudarostearekin eta Aragoi, Ebro eta Levanten frankistekin, ez oso gus-

tura dirudienez, *Nire gazte denpora* (Sendoa-Auspoa, 1996) autobiografian adierazten digun legez: "Sarritan, aginten dauanaren azpian egon bear da, nai eta nai ez. Mundua horrela dago ifinita, eta barriz militarra militarra da. Ez dautse besteren onari begiratzen. Eurak ondo egotea bakarrik" (217 o.).

Egia esan, Francoren armadan euskaldun asko ibili zen: batzuk boluntario, beste asko kintek harrapatuta eta, arestian esan den bezala, gerra Errepublikaren alde hasi eta, preso hartu ondoren, Errepublikaren kontra derrigorrean bukatu behar izan zutenak. Boluntarioen testigantza idatzirik ez zaigu euskaraz ailegatu, baina kintak deitu ondoren joandakoen artean hor ditugu, gorago aipatu den Salaberriarenaz gain, Patxi Lazkano eta Jose Azpirozena. Ametzagaiñako (Donostia) **Patxi Lazkano** bertsolariaren *Tiro tartean bertsotan* (Auspoa, 1983) liburuan gerrako gorabeherek betetzen dituzte orrialderik gehienak. Kuriosoa da frankistekin kanpainan ari zela, ez ziola bertsoak idazteari utzi; hortik datorkio titulua liburuari. Ez du egoeraren azterketa politiko sakonik egiten, bai, ordea, bertsoz nahiz hitz-lauz hausnarketa adierazgarriak; hara, horietako aletxo bat: "Kaletarrak oso gutxi ziran gure artean. Aiek oponio pixkat zutenak izaki geienak eta Bizkai aldera-edo joanak ziran. Ta beste aldeko oponioa zutenak, aiek reketeetan-da sartuak. Baserritarrak, berriz etxean geratu. Gero kinta deitu ta joan egin bear. Orregatik, geienak baserritarrak giñan gu" (128-129 oo.).

Jose Azpiroz berastegiarraren *Gogoz kontrako pausoak* (Etor-Auspoa, 1989) ere gisa horretako ibilerak kontatzen dizkigu gerrari dagokion parte luzetxoan. Antzeko xehetasunak irakur daitezke, halaber, **Agustin Zinkunegi** andoaindarraren *Bizi naiak lege zorrotzak* (Sendoa-Auspoa, 1995) autobiografian, non maizago azaltzen den protagonistak barruan daraman harra, izan ere frankistekin egin behar izan zituen ia bi urteak, Laredon preso jausi ondorengoak izan baitziren. Honelakoak jasan behar izan zituen, esate baterako, Teruel

aldeko guda-lerroan: "Mendi malkar artan leku txarretik egokitu ere nintzan, eta atzena eta doi-doi iritxi nintzan luebakira edo trintxerara. Sarjento Gaspar edo alako anka-makil bat an zegoan bildurrak aidean, pistola eskuan zualarik. Desafioka asi zitzaidan, atzena iritxi nintzalako, eta ikaratuxe ere egin ninduan: — "*¡Tú sigues siendo un rojo! ¡Te voy a pegar cinco tiros!*" (103. o.).

Desberdina da **Jose Mari Etxaburu** ondarrutarrak, 1963an idatzi arren, askoz beranduago kaleratu zen *Neure lau urteko ibillerak* izenburuduna (ZER aldizkarian atalka (1984-1986) / Etor-Auspoa, 1989, liburu gisa). Berez ez zuen Etxaburuk gerran parte hartu, Iparraldera alde egin zuen-eta. Han iragandako hiru urteetan izan zituen arazo, pena eta gabeziak azaltzen dira liburuan. Baina ez hori bakarrik, Hegoaldera bueltatu zenean, beste urtebete pasatu behar izan baitzuen San Pedro de Cardeña, Miranda eta abarretako zigorzelaietan.

Dena den, beste jite bat duena azkenaldi honetan eskuetaratu zaigun autobiografia berezi bat da: **Iñaki Isasmendi** azkoitiarraren *Nire denboraldiko ibilerak* (2000). Liburu honek bere laburrean ederki islatzen du oinarriko militante baten bilakaera politikoa, bere pozaldi, zalantza, desengainu, eztabaidekin. Horrela kontatzen digu, adibidez, Artxandako sarraskiaren ondoren, Bilbo galtzean hartu zuen etsipena: "Halaxe utzi genuen Bilbo etsaiaren eskuetan tirorik egin gabe [...]. Gure lagun asko geratu ziren bertan faxisten menpe. Barrena hutsik sentitu nuen. Ez sinestekoa da buruari zenbat buelta eman genizkion horrela jokatzeagatik. Lagun asko hilda zeuden, beste asko etsaien atzaparretan eroriak, sendi gehienak berririk gabe... Zama astuna genuen gure gainean" (39 o.). Baina gerra galdu, lau urte espetxetan pasatu, jaioterrira itzuli eta laster, erresistentziaren deiari zintzo erantzunez, hor doa berriz Frantziara ezkutuko lanera, nahiz eta batzuetan alderdiko buruzagiekin desadostasun nabarmen samarrak eduki. Batura egokitutako euskara bizian idatzia, Iñigo Aranbarriren aurkezpena du.

2.2.2. Hiru elizgizon eta mediku baten lekukotza

Nahiz eta hauei ere 1936ko gerra zibilaren erasana beste askori adina iritsi zitzaien, azpiatal berezia eskaini behar zaiela uste dut, gatazka hartan eduki zuten partaidetza bestelakoa izan baitzen, hartaz idazteko tankera ere desberdina duten bezalaxe. Elizgizonak Santi Onaindia, Rafael Urionaguena eta Txomin Iakakortexarena ditugu; medikua, aldiz, Fermin Irigarai *Larreko*. Bi bizkaitar, gipuzkoarra eta nafarra, hain zuzen ere.

Santi Onaindia karmeldarra oso ezaguna egin zitzaigun gerra osteko lehen hamarkadetan, idazle, itzultzaile eta argitaratzaile moduan burutu zuen lan eskergarengatik. Baina Amorotoko seme honek beste zeregin batzuei aurre egin behar izan zien, fraide gazte zela: 1936ko udazkenean Eusko Gudarostea eratu zenean, *Kirikiño* batailoiko kaperau-lanetan ibili zen Bizkaiko kanpainan Intxorta, Bizkargi, Sollube, Artxanda eta enparauetan. Gero Santoñako errendizioa, Dueson espetxea, epaiketa eta 30 urteko zigorra; preso Dueñas-eko (Palentzia) trapan eta Carmona-ko (Sevilla) kartzelan egon zen beste euskal apaiz eta fraide askorekin eta Julian Besteiro sozialista moderatuarekin batera. Espetxetik, egia esan, arin samar atera zen 1940ko uztailean, baina puska batean Euskal Herritik kanpora bizi behar izan zuen. Horrelaxe ziren orduan kontuak: hamaika amaren seme eta alaba hil zen fusilatuta, juizio labur-zorrotzekin edo inolako juiziorik gabe, baina kartzela-urte luzeak asko murriztu ziren arrazoi politiko eta ekonomikoengatik.

Horiek guztiak eta beste gauza asko kontatzen dizkigu Onaindiak zehatz eta mehatz *Oroi-txinpartak* (1988) izeneko memoria-liburu mardulean. Hiru zati nagusitan banatuta dago lana: "Praile" / "Gudarien kapellau" / eta "Idazle" izenekotan. Esku artean darabilgun gairako bigarrena (150 bat orrialde) da interesgarriena, noski. Armada bitxi eta nahasi hartan gerra-kaperauen lana nola gauzatu zen hobeto jakiteko ematen dituen argibideak dira, agian, erakargarrienak. Baina Larreako fraideak sarritan ez digu gerraren kronika

ofizial bat baino eskaintzen, lehendik ere beste iturri batzuetatik ezagutzen genuena. Hori bai, euskaraz oraingoan.

Alderdi horretatik behatuta, **Txomin Iakakortexarena** apaiz berastegiarraren *Bizitzan bi goiasmo* (Kardaberaz, 1990) autobiografiak zertzelada zehatzago eta pertsonalagoak eskuratzen dizkigu. Gerra sortu orduko, Iakakortexarena bere burua ezagutarazten hasia zen *Aitzol*ek bultzatutako olerkarien ahalegin hartan. Gatazkaren eztandak egun ia desagertuta dagoen herritxo batean harrapatu zuen: artean erdi-euskaldun zen Ipar Arabako Nafarraten, hango parrokoa baitzen. Inguru horretan gertatu ziren 1936ko abenduan Legutianoko eraso eta kontraeraso gogorrak. Abertzaleekin batera gorri euskaldun asko zebilen orduan Billerle berreskuratu nahian eta matxinatutako militarrak ere bertan ziren. Bi suren artean dagoenak sufritzen dituen larritasunak garbi adierazten dira Txominen testigantzan: lehen egunetan Gasteizko militarrek atxilotu zuten euskaltzaleegia zelako eta geroxeago miliziano komunistek ia garbitu zuten. Gerora jakin zuenez, *Lauaxeta*ren babesak salbatu zuen azken unean.

Hurrengo hilabeteetan *Araba* batailoiko kaperau gisa aritu zen Aiara eta Urduña aldeko eskualdeetan. Gernikako bonbardaketaren biharamunean hondamendia zenbaterainokoa zen ikustera hurbildu zen bertara bere batailoiko komandante eta medikuarekin. Herrira heldu baino lehentxoago *Lauaxeta* eta kazetari frantses bat agurtu zituzten, baina anabasa hartan hauek aurrera eta eurek atzera egin zuten. Badakigu zein izan zen Urkiagaren patu beltza. Bilbo jausi zenean ere ozta-ozta ihes egin zuen berastegiarrak Santander aldera beste hainbat apaiz nazionalistekin. Jaurlaritzaren laguntza izan arren, zenbait egunetako ihesaldi lanjerosa izan zuten, lehorrean gorriekin eta itsasoan faxistekin sarritan egon baitziren hiltzeko zorian. Azkenean lortu zuten Bordeleko portura heltzea; Ipar Euskal Herrira jo zuen Txominek lehenik eta, naziak iristear zeudela, Argentinara gero urte askotarako. Handik aurrerakoak ere ez ziren makalak izan, baina hori beste kapitulu bat da. Onaindia eta

Iakakortexaren bertsioak elkarren osagarriak izan daitezke: ugariagoa eta literarioagoa bizkaitarrarena, zehatzagoa eta beroagoa gipuzkoarrarena; biak garbizaleak eta batuaren aurkakoak izan arren, errazago irakurtzen da Santirena, Txominek aranismo gehiegitxo erabiltzen baitu.

Hirugarren elizgizonaren testuak, hots, **Rafael Urionaguena** bolibartarrarenak, ez dauka horrelako arazorik: fraide hau Larreako karmeldarren komentuko buru zen 1936an eta kargu horretan iraun zuen, harik eta 1937ko maiatzean Mola ankerraren tropak Zornotzan sartu ziren arte. Ez zen frentean ibili eta bere aurkako salaketaren argudio nagusiak honako hauek ziren: abertzale porrokatua izatea eta, milizianoekin Larrean harreman zailak eduki arren, *Rosa Luxemburgo* batailoi gorriko komandanteari eskerrak eman izana. Hamasei urteko zigorra bota zioten, eta pozik, komentu bereko Aita Leon Arangureni heriotz-zigorra tokatu baitzitzaion, gero, majo kostata, konmutatu bazioten ere. Ez zuen hainbeste suerte izan Aita Roman Urtiagak, inolako epaiketa barik Larreako komentuaren ortuko horma-kontran Tolosako erreketeek 1937ko maiatzaren 19an fusilatu zuten-eta. Horrelako izugarrikeriak eta beste albiste asko datoz Aita Rafaelek, Carmona-ko kartzelatik Santiago Onaindiarekin batera itzuli eta gero, gaztelaniaz idatzi zuen txostenean. Aukeran belutxo bada ere, orain euskaraz irakur ditzakegu Luis Baraiazarrak argitaratu berri duen itzulpen txukunari esker: *Larreako komentuaren eta bertako priorearen ibileren kontaera historikoa Espainiako gerra zibilean / 1936-1940* (*Karmel* aldizkaria (2005-4), 252. zenb., 109-253 oo.).

Fermin Irigarai *Larreko* euskal idazle nafarraren gerra-denborako egunkaria ere berandu samar iritsi zaigula esan behar. Hala ere, gaitz erdi eta mila esker argitaratu dutenei, gure artean beste hainbat idazki betiko galdu baita. Irigarai izeneko idazle-sagari hasiera eman zion Pablo Fermin 67 urteko mediku ospetsua zen Iruñean, hantxe bertan Molak eta bere morroiek anaiarteko sute ikaragarri

hura piztu zutenean. Aipatu berri ditugun hiru elizgizonak bezain katolikoa eta kontserbadorea genuen *Larreko*, baina baita haiek bezain euskaltzalea ere. Horretan zetzan bere barne-gatazkarik urragarriena. Olaetxea Iruñeko apezpikuaren sendagile eta adiskide zelako salbatu zuen bere burua, eta influentzia guztiak erabili behar izan zituen Aingeru semea ere libratzeko. Matxinoen altxamenduaren lehenengo momentutik ia erabat isolatua geratu zenez, ez zuen Gipuzkoan, Bizkaian eta beste borroka-leku batzuetan gertatzen ari zenari buruzko informazio fidagarririk. Eta frentetik urruntxo egon arren, egunero aurkezten zitzaizkion lanean ziharduen ospitalean gerrak zekartzan era guztietako zauriak eta ondorio odoltsuak, alde batekoak bederen.

Nafarroan nagusitu zen terrorismo-giro zital hartan erabat ez etsitzeko, ikusten eta entzuten zuenaren testigantza geroari eman nahi izan zion eta hartarako egunkari pertsonala euskaraz idazteari ekin. Barrena lasaitu gura zuen, nonbait, nahiz eta izkribu hura une haietan beretzat eta sendikoentzat benetan arriskutsua izan zitekeela konturatu. Egunero ez, baina sarri-sarri jaso zituen Espainiako gerra-garaian bizi izandako gertakariak ez ezik, II. Mundu-gerraren hasieran jazotakoak ere. Bazekien nolako etorkizuna izango zuten Euskal Herriak eta euskarak gerra hura matxinoek irabazten bazuten. Hala eta guztiz ere, sufrikario haren amaiera desiratzen zuen bere bihotz erdibituak. Urte hits haietan *Larreko*k idatzitakoak ezkutuan gorde zituen familiak, harik eta, *Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo* izenburu esanguratsuarekin, Jose Angel Irigarai bilobak *Xamar*en laguntzaz argitaratu zituen arte (Pamiela, 1993). Bere edukiarekin konforme egon ala ez, nire iritziz, aparteko balioa du egunkari bitxi honek euskal letren historian eta gerra zibilari buruzko kontaeretan, ez baita gauza bera uholdea pasatu ondorengo kronika moldatzea edo, ur-lasterrean abiadan zoazenean eta jaitsiera zoro hura noiz eta nola bukatuko den ez dakizula, zurrunbiloaren barrutik lekukotasuna ematea.

OHARRAK

1. Laster berrogeita hamar urte beteko dituen ETAren borrokak sortutako literaturak baditu, apika, sail honetan sartzea gomendatuko luketen ezaugarri batzuk. Baina beste batzuk ez hainbeste. Gainera, gai horretaz kanporatzen ari diren obren artean fikziozko lanak erabat nagusi dira oraingoz. Denbora-kontua izango da akaso eta apur bat itxaron egin beharko da.
2. Jakina da alemanen okupazio-garaian Eskualduna kazeta nola edo hala argitaratu zela, batzuetan eragozpen eta zailtasun handiekin. Liberaziokoan zigortu eta debekatu egin zuten, nazien kolaboratzaile izatearen salaketapean. Jadanik denbora-tarte luzexkoa iragan delakoan, eta orduko egoera hobeto ezagutu ahal izateko, ez ote da urte haietako aleak berrargitaratzeko garaia iritsi?

BIBLIOGRAFIA

- ALKAIN, Iñaki / ZAVALA, Antonio. *Gerrateko ibillerak - I, II eta III*, Auspoa, Tolosa, 1981.
- ARBELBIDE, Xipri. *Gerla tresna bizidunak*, Elkar, Donostia, 1986.
- AZPIROZ, Jose. *Gogoz kontrako pausoak*, Etor-Auspoa, Donostia, 1989.
- ELIZALDE, Jean. *LVII.a gerlan*, Alberdania, Irun, 1995.
- ENBEITA, Balendin. *Bizitzaren joanean*, Elkar, Donostia, 1986.
- ETXABURU, Jose Mari. *Neure lau urteko ibillerak*, Etor-Auspoa, Donostia, 1989.
- ETXEBARRIA, Faustino. *Nire gazte denpora*, Sendoa-Auspoa, Oiartzun, 1996.
- IAKAKORTEXARENA, Txomin. *Bizitzan bi goiasmo*, Kardaberaz bilduma, Tolosa, 1990.
- IRIGARAY, Fermin "Larreko". *Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo*, Pamiela, Iruñea, 1993.
- ISASMENDI, Iñaki. *Nire denboraldiko ibilerak*, Azkoitia [?], 2000.
- JOANNATEGUY, Grégoir. *Alemaniara deportatua*, Elkar, Donostia, 2003.
- LAZKANO, Patxi / ZAVALA, Antonio. *Tiro tartean bertsotan*, Auspoa, Tolosa, 1983.
- ONAINDIA, Santiago. *Oroi-txinpartak*, Euskerazaintza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babespean, Bilbao, 1988.
- PEILLEN, Txomin. *Aldjezairia askatuta*, Hordago, Donostia, 1982.
- PUJANA, Basilio. *Deabruak ostutako urteak*, Sendoa-Auspoa, Oiartzun, 1991.
- SALAVERRIA, Sebastian. *Neronek tirako nizkin*, Auspoa, Tolosa, 1964.
- URIONAGUENA, Rafael. "Larreako komentuaren eta bertako priorearen ibileren kontaera Espainiako gerra zibilean / 1936-1940", in *Karmel* aldizkaria [2005-4], 252 zenb., 109-253 oo.
- ZINKUNEGI, Agustin. *Bizi naiak lege zorrotzak*, Sendoa-Auspoa, Oiartzun, 1995.

Elkarrizketa

Luzien Etxezaharreta

Piarres Xarriton:

Iparraldeko literatura bideen iturrietaz 20. mendean

LUZIEN ETXEZAHARRETA

Piarres Xarriton: Iparraldeko literatura bideen iturrietaz 20. mendean

• **Erran daiteke ohargarria dela Ipar Euskal Herriko jendeak «euskara ederra», kalitatezko euskara bati buruz halako ezagupen eta onespen bat duela, nahikari bat ere: nola senditzen eta esplikatzen ahal duzu hori?**

Zeren eta, behar bada, nahiz Humboldt-ek erran zuen bezala duela berrehun eta zenbait urte —hark zuen euskara modan jarri 19. mendean jakintsunen artean— eta konparatzen zituelarik Hego Euskal Herriko euskaldunak eta Iparraldekoak, beti erraiten zuen aski diferentak zirela euskal herriak —orain ere hala direnak eta ontsa ikus nezazkenak Suitzako herrian bezala, gu ere baigara doi bat Pirineotako helvetiarrak...— Ez da dudarik euskara bi bideetarik izan dela landua, ez dela bakarrik izan Quebec-en bezala. Han izan nintzelarik entzun nuen frantsesa zela zurgin edo aizkolarien eta ur karrearien hizkuntza, aldiz inglesa goi mailakoa, hura bankeroena eta industrialariena. Hemen ere erraiten ahal ote da hori? Orai aurkitu dokumentu berriekin ez dut uste, hatxeman baitituzte euskara zakitenak Gasteizko ondoan, hirugarren mendean hots Nizeoko Kontzilioaren aitzinetik! Jakin dugu ere bestalde Felipe Bigarrena erregearen inguruan ziren jendeen artean bazirela ez bakarrik latinez edo espainolez ari zirenak, bainan ere euskara lantzen zutenak! Testu berriak agertu dira 16. mendekoak gipuzkeraz ari zirenak edo arabarrez, galdua den euskalkian. Erran nezake hemen ere izan ditugula euskara landu duten idazkari edo goi mailakoak, abokatak, Oihenart bezala, eta beraz, Humboldtek

errana gatik diferentzia hau badela, euskal herrien artean, frantsesen artean, badira bi hizkuntza mota: bat kulturadunena goi mailakoa, Gorteko, erregeen eta printzeen ingurukoa eta jende xehearen hizkuntza, "patois" deitzen dituztenak mespretxuz jende behar bezalakoek! Hemen etzela holakorik erraiten zuen Humboldtek. Hemen jende xeheak, laborariak, buhameak eta jauntxoen artean. Egia erran ez nakien zer pentsa hortaz, baina gero eta gehiago iduritzen zait, Iparralde honetan bederen, nahiz ez ditugun Hegoaldean bezain jauntxo edo ahaide nagusiak ukan, edo ez hainbeste, gutiago baiginen. Bainan ez hainbeste zeren eta hiru euskaldunetarik bat ginen duela berrehun urte iparraldean bizi, orai hamarretarik bat garelarik, badakigu zer gertatu den ekonomiaren aldetik... Dena dela, bi bideetarik: jauntxoak eta bestalde, baziren klerigoak, apez eta fraideak, nahiz hauk gutiago Hegoaldean baino, izan baitugu Iraultza Frantziakoa, non fraideen kontra ari izan ziren frantsesak, hemengo fraideak ere haizatuz. Aldiz, baziren apezak eta zonbeit fraide edo bederen jesuiten ume izan direnak Iparraldekoak, Etxeberri Ziburukoa bezala eta idazle handiak gure "klasikoak" deitzen direnak. Heldu baita, Iparraldean ororen buru, euskara landua izan dela Hegoaldean baino berrehun urte lehenago.

• Horrek ondorioak izan ditu, jende ez eskolatuen artean, laborarien munduan eman dezagun.

Ni haur haurra nintzelarik, eman dezagun, etxe ttipi batetako semea, halere Hazparne herrian baginituen euskara nola mintzatu behar zen erakusten zaukutenak. Horiek ziren Hazparneko Misionestak, Euskal Herri guzia kurritzen zutenak eta kaputxino bat edo beste, nola Frère Eusèbe. Misionesta horiek ziren apez batzu, hautatuak zirenak dohaina bazutelakotz eta lantzen zutelakotz. Etxe horretara jin naizelarik, behin ikasle triste bezala, gero hogei urtetan irakasle bezala eta gero, Erromatik landa, berriz etorri nintzelarik etxe horretara, azkenean buruzagi bezala, paper zaharrak miatu di-

tudalarik, ikusi ditut hor gure lehenagoko apezen, ezagutu ez nituenak, entzunak nituenak hala ere etxen zoin ziren predikari onak eta famatuak. Adibidez, denek bazekiten ikaran jartzen zituela eskolan eta Lafittek ere erran zaukun, aita Larregain Hazparnekoa. Astia nuelarik paper zahar horiek irakurtzen nituen eta ikusi nuen nola zituzten lantzen gure jendek euskara hori, gero Lafittek, bere Gramatika egin zuelarik deitu zuena "le navarro-labourdin", erran nahi baitu Lapurditik Zuberoraino bateratua jadanik zen euskara hori. Nolazpeit baginuen euskara batua egina Iparralde honetan. Euskal Herri osoraino zabaldu nahi izan delarik, problemak sortu ditu hegoaldean sortzen ari zen eta orai batzuek diotenaz itoko gaituen euskara batu horren uhaina.

• Ipar Euskal Herrian izan diren apaltasuna, modestia, ez baitira hainbat idazle bezala agertu nahi izan, Oxobi bat bezala, iduri du jendeak aski ongi zekielakoan bere hizkuntza, idazle hauek doi bat hobekixeago baizik etzutela erabiltzen. Iduriz ez da halako mugarik izan idazlea eta herritarren artean, harreman errexa izan balitz bezala.

Ikusi ditut holako jende batzu. Eman dezagun medikuak. Etxen izan genuen lehenik Larraidy, ez naiz hainbat orhoit, bainan ondotik jin zen Hippolyte Matthieu, apezpikuaren anaia. Jiten zelarik gure etxera, maite zuen eleketa artzea non ere egun batez gertatu baitzizaukun gure izebaren ikustera jin, kaxa ura berotzen ezarri eta suia hil eta gauzen plegatzen hasi zela etxeko atera joan, han egon non partitzera baitzoan gure eria ikusi gabe. Preseski solasa ginuen ene izebaren euskara! Erraiten zautan "nahi dutalarik jakin euskal aditza nola erabili, zuen izeba Charlotterekin mintzatzea maite dut". Ene izeba mutxurdinak erabiltzen baitzuen aditza eta kartierean hura zen erreferentzia nola erabili jakiteko! Orhoit naiz, bakantzetan etxera jin eta gero berari erran nakon, gero apeztu nintzelarik, Oxobi egona baitzen Dohoztirin erretor orhoit naiz aste batez joan nintze-

larik Pazkoz bakantzetara etxerat. Orduan bazen "Stabat": Aste Sainduan, egiten zen prediku bat, arraroa, Jesusen Pasionea kondatzen baitzen xehe xehea eta gero kantatzen zen "Stabat Mater", latinezko kantua. Predikuaren berezitasuna zen biziki luzea zela eta bizpahiru alditan gelditzen zela kantu edo otoitz baten emaiteko, nola "Oi Kurutzea". Hori zen zeremonia hutsa Ostirale Saindukoa. Dohoztiriko apeza jin zen predikatzera Hazparnera, orhoit naiz amak erranik "holakorik oraino eztixut egundaino entzun, deneri nagusi dixie Misionest horiek Dohoztiriko erretorra". Geroxago joan bainintzan, apeztuta, Oxobiren herrirat, hura igorri baitzuen Arrangoitzera. Erran nion "nahi nuke atsolutoki eman diezadazun prediku bat, Hazparneko elizakoa". Orduan, hor dut prediku hura, bainan haren hastapena: kaiera hor da, aitortu zautan Oxobik etzituela sekulan buruan buru bere predikuak izkiriatzen. Hasten zuen, lehen lerroak, idatziak, errepikatuz eta gero, barneko suari fida zen eta botatzen zuen bigarren partea, aski trebe baitzen, ikasia zuen ofizioa.

• Ikusten da hor berritz ahozko eta idatzizko literaturaren hartu eman indartsua. Badira ere bestalde euskara lantzen zituzten koblakari, bertsulari, ditxolariak.

Gizon ala emazte! Gaztetan ezagutu ditut: Hazparnen baziren, eman dezagun, Ñañex Otxobi, Intzabi "Deurüa"tarren familia, baziren denetan, gehiago dena orai berriz eskuratu dut paper bat publikatuko dudana: Hazparneko merkatuan, 1943an egin pertsuak erosi nituen egileari, ikusi dut hazpandar bat, berak egin pertsuak, inprimaraziak Baionan, saltzen. Aipatzen zuten beti Xarlex faturra, zelaitarra, nik ezagutzen ez nuena, hazketarra izanez! Orhoit nintzen paper horietaz, bertsuak "Xarlex faturrak eginak". Hor erraiten du nola Hazparnetik Alemaniarat joan behar izan zutela batzuek, STOra, Service du Travail Obligatoire delakora. Xarlex ezkondua eta aita familiakoa zen, baina jakin berria dut egilea ez zela hura bainan

beste Xarlex bat, haren iloba eta hau makearra. Lekukotasun pollita da, hogeita hamalau bertsotan. Kondatzen dute elgarretaratu zirela zortzi lagun, muga pasatu, preso sartu zituztela Arizkunen karabineroek eta eraman Iruñara, han debrua ikusi eta handik Cela Nuevara joan, Langraitz edo Miranda de Ebroko presondegi famatura.

• Koblakarien, pertsu idazleen eragina ohargarria izan dela euskarari begira...

"Aña debrua" bada ere. Haren pertsu batzu bilduak dira. Bazen Mailluquet familia eta boz ederrak zituztelakotz kantatzen zituzten besten pertsuak. Hiriart-Urruty-k aipatzen ditu artikulu batean "Hazparneko pertsulariak". Osatu beharrez lan batzu bilduak ditut bainan lana egitekoa da, nik uste baita Hazparne inguruko umore bat. Katxo Hazparnekoa, adibidez Mendiaguek ezartzen du Etxahunen maila berdinean. Hau da seguraz ere "Galerianoaren Kantua"ren egilea, zeren eta Martin Larralde galerianoak ez baitzakien bere izenaren sinatzen ere... Nihundik ere honek etzituen "kopiaraziko, burdinez kargaturik, Paueko hirian" bertso haiek.

• Iparraldeko idazle frango ezagutu dituzu: Oxobi, Iratzeder, Zerbitzari bezelakoek, nolako kontzientzia izan dute beren idatzien kalitateaz, senditzen zutena beren maila?

Etzuten behatzen handi ala ttipi ziren, maite zutelakoan ala ez, egiten zuten hori. Amorez ari ziren lanean, nik hola ikusi ditut. Larzabal bat, adibidez, etzen batere kezkatua. Mitxelenak erraiten zuen haren euskara "zabarra" zela, ez landua, etzela joieria lana. Baina Larzabalen uharra eta indarra! Hori jauzten zaio barnetik eta gaztetik: hamalau urtetan egin dituen bertsoak hamalau urteren ohoretan, horiek dira seinale, gazterik duzula edo ez duzula dohaina! Ohartu zitzaion Lafitte, bazuela eta lagundu zuen. Hola egin du egin duena: zazpi tomo bildu ditudanak nihaurek eta ez ditut denak bildu.

• Idazleak biltzen eta beren idazlanetaz mintzo zirena? "Euskal literaturaz" etzen mintzo denboran, iduriz.

Aipatzen ginituen "komediak", Hazparnen bazelakotz tradizio bat aspaldian jarria, Mirande erretorra berarekin. Mauleko nagusi familia batetakoa zen eta maite zuelakotz egiten zituen, frantsesetik itzuliak eta euskaraz emaiten bere "patronnage"etan. Iduritzen baitzitzakon, bikario zelarik Baionan edo Hendaian, gaztek behar zutela kultura nolazpeit bildu. Apezek, estaduak egiten etzuen lana, subsidiaritate hitz horrek forma ainitz baititu...!

• Idazle kontzientziarik baziteken?

Uste dut beren maila bazakitela. Oxobi eta Zerbitzari hurbilenak ukan ditut. Etxepare landu dut bainan ez dut ezagutu, Barbier are gutiago. Lafitte honen familiak baztertzen zuen, sobera zorrotza izan baitzen, Gure Herria-n zirikatu zuen Ibarnegaraien usainetik baitzoan eta familiak etzion barkatu. Aldiz Zerbitzarirekin ez ginuen "atomes crochus"rik. Ene eskolako laguna, miresten eta maitatzen zuena zen beste idazle bat, hura doi bat artista, Mixel Labéguerie. Elizalde-Zerbitzarik bazuen artisteri buruz tirria bat. Lagunak ginen baina ez beti frekuentzia berdinean. Aldiz Oxobik osoki berea ninduen. Pentsatu dut geroztik zergatik ukan ditudan apezetan batzu biziki karesatu nautenak eta beste batzu ez hainbeste. Hori aitzinekoen fama zen: familian nuen Charritton archiprêtre-a, gora gora predikatzen, aitak omen landa muturrean bere langileak manatzen zituen bezain gogorki, zioen haren auzo Amespil kalonjeak... Banuen beste bat ni baino biziki zaharragoa, hamar urte nituen hil zelarik, hura zen otto apeza eta nik haren bilioteka dut ukan ttantta Maienari esker, haren gelaria baitzen. Liburutegi izigarria, hamaseigarren mendetik haste eta horrela ene lehen hiztegi zaharrena dut "Bekatuen Hiztegia" 1533an Cajetano kardinaleak egina, latinez! Eta beste zonbat euskaraz: berrogei bat urtez Imprimatur-a emaiten baitzuen Diharce-k, fama zuena errepublikanoa zela, hori ainitzentzat bekatua Euskal Herrian.

• Literatura aipatzen den pundutik jotzen dugu Piarres Lafittekin. Nola ikus daiteke orai haren itzala, 20. mendeko idazleen biltzaile, errepikagailu, boz altxagailu. Monumentu baten itxura duen haren lanak nola ikusten dituzu?

Nere ikustera jin zaut judu amerikar bat, Jacob, Chicagoko erakasle handi bat. Bere tesia egin zuen abertzaletasunaz Iparraldean eta zion bi gizon bazirela euskaltasuna atxiki zutenak eta beren marka ondoko belaunaldiei eman dutenak. Horiek dira Urrikariet Mugerreko erretor, hor ehortzia dena: Oldarra, Abeberritarrak horren umeak dira. Eskuinetik heldu da. Alderdi ezkerretik, dionaz, ez sozialista baitezpada, bainan lehen errepublikano erraiten zena, hor Lafitte. Bi apez horiek jartzen ditu Iparraldeko iturri bezala, euskaltzaletasunaren atxikitzaile bezla. Uste dut xuxen ikusia duen. Jacob-ek dio Urrikarriet zela "frantses abertzale Maurrasiar ohia, euskal abertzale bilakatua". Aldiz Lafitte Maurras-ek ez du tentatu. Demokraziaren bidea, Daniel Rops, eta hogeita hamarreko belaunaldi frantses kultura europarrarekin, Denis de Rougemon eta Alexandre Marc eta Emmanuel Mounier, norbait dena, Arnaud Dandieu bere "La Révolution nécessaire" obrarekin eta Robert Aron. Jende horiek asmatu dute, Hamalaueko gerla ondoan, orduan ez baitzen gerlari ohien bozik baizik entzuten. Amesten zuten munduaren berritzea: ez dute fitxik egin ahal ukan, batzu erori baitira alemanekin "Révolution Nationale"ra Pétain-ekin, ito dira hor, batzu fusilatu dituzte, nola Brasillach. Bainan bestaldetik, bada beste talde bat, Robert Schuman, Michelet, Bidault eta horiek oro, jin direnak indarrean, 45ean, bereziki Espainiako gerlan euskaldunen alde agertu ziren frantsesak.

• Esplikazione bat xekatzen balitz, behar bada daiteke Lafitte umezurtz izan dela eta bestalde Tolosan, bikario bezala egin zuela egonaldia langileriarekin...

Pentsatzen dut baietz. Ttipitan ainitz sofritua da Lafitte. Egun batez eskolan ikusi ginuen nigarrez ari, denak harritu gintuen. Badakit

nori buruz ari izan zen... Durquet baten irri egin ziolakoan, uste ukan zuen hartaz irri egiten zuela: buruz buru deitu zuen, kofesategira bezala, eta erran zion "sekulan ez zuela jakinen zer den umezurtz izaitea!" Horrek zion nigarra jauzarazi.

• Gogora daiteke ere Lafitte-ren betiko aurpegi mindua...
Beti begitarte sufritu bat. Horrek ere gaixtotzen zuen batzuetan: ez da beti xuxen mintzatu ere horrengatik. Horretaz bada non bazka irakurtzeko.

• Iduri baitu Iparraldeko euskararen geroaz etsitua zela, nolako esperantza agertzen zuen Lafittek zure ustez, ilundurak hartua baitzuen iduriz azken urteetan?
Arantzazun, 1968an, Hren ixtorioa zela eta, badakigu Lafittek erran zuela "guregatik ez duela balio sar gaiten eztabada hortan". Orduan ni xutitu nintzen: "barkatu jauna, ni zure ikasle izana, ausartzia da behar bada hola boza altxatzea, bainan behar diet erran ene hemengo laguner, behar dugula elgar ezagutu piska bat, behar dut erran, zure ikasle bezala, bazinituela zure egunak, behar bada haize hegoa zelarik edo, behar ginuen behatu zure biloeri, piska bat trebes balin baziren, orduan kasu hasten bazinen gure kopia baten zuzentzen... behar bada egun ere halako egun bat da, ez dut uste egun ona den deklaratzeko gureak egina duela, bagira oraino, zonbait gazte gelditzen dira oraino Iparraldean, ez da gurea fini!"

• Bestalde, Lafitte, euskal literaturari dagokionez, lehen kritiko nagusi izan da, hainbeste idazle aipatu, lagundu, jorratuz...
Behar den bezala! Ez da landarerik ontsa pusatzen ahal ez bada jorratzen: baitezpadako lana da laborari guziek ikasi behar dutena. Kantuak badira ere horretaz euskal literaturan, arto jorratzaileenak, karbarienak. Hura dugu izan maisu, berak erraiten zuen bezala Etxeparerentzat, Iparraldearen maisu izan da, Hegoaldean ere, aini-

tzek ez dutelarik salatzen, hura zutela beren erreferentzia. Orai ari da publikatzen Lafitten gutundegia, Andiazabalek baitu eskuetan. Badira hor gauza harrigarriak eta xuxentzen dituztenak gauza batzu. Adibidez, Soubeletekin zituen harremanak: gurekin hartaz gogorki mintzo zen, bainan eria zen eta ikusten direlarik letra horiek, arras bestelako harremkatarakatikanak agertzen dira. Gisa berean Mirande-rekin, Mirandek Lafitteri izkiriatu zazpi-zortzi letra dira, batzu hil aitzineko urtekoak. Jakiten duelarik Lafitte kataraktatik operatua dela eta bista laburtu zaiola, hemen ez ginen ohartu ere operazionerik egin zuenez, Parisen Mirandek jakin zuen eta bidaltzen dio gutun hunkigarri bat, ukan dituen miseriak kondatzen dizkiola, etxetik kanporatzea, ospitaleko egonaldiak zainetarik eri... Ikusi behar da jenden arteko harremanak ez direla batere uste ditugunak.

• **Teknologia berriekin baikor zara...**

Mende berri bat ekarriko dute, Gutenbergek egin zuen bezala. Ez du erran nahi ez dugula entzun behar zer erraiten zuen Santo Tomas Aquinokoak, Spinozak, San Frantses Xabierrekoak bere ehun eta hogeita hamar bat gutunetan.

Liburu-iruzkinak

Amaia Iturbide

Tere Irastortza

AMAIA ITURBIDE

Hiru bide eleberrigintzan

Eleberria generorik malguena eta agortezina dela esaten baldin badut ez dut uste inor harrituko dudanik, hori behintzat erakusten digute gaur egungo hiru eleberrigilerik nagusienetariko hauek, Juan Marsék, Enrique Vila-Matasek eta Javier Cercasek. Juan Marsék *Rabos de lagartijas*-en esanahi anitzeko mundu konplexua erakusten du, Enrique Vila-Matasek *Doctor Pasavento*-n hegaldi irreala proposatuko digu eta Javier Cercasek *La velocidad de la luz*-en idazkera zehatzean jarriko du arreta.

Juan Marséren eleberrien artean *Rabos de lagartija*-k (Lumen, 2000) leku nabarmena hartzen du. Gerra osteko Bartzelonan (beraz, garai historiko zehatz bateko lekukotasunean) kokatuta, hor agertzen diren pertsonaiak ezin hobeto lortuak daudela esan behar. Juan Marséren beste eleberrietan gertatu bezalaxe, pertsonaiok, oraindik ere ilusioren bat gordetzen badute ere, galtzaileak dira bai bizitzak egokitu dizkien egoeretan eta bai darabilten hizkuntzan (argot xelebrea da eurena). Sartu bezala egiten zaizkigu begietatik eta bihotzean gelditu (David eta Chispa txakur gaixoa komiki batetik aterata daudela ematen du, Rosa Bartra, haurdun dagoen ilegorria, eta Galván inspektorea grafikoak dira oso); misterioa erakuts diezagukete (Davidek Daniel anaia jaio gabearen mintzoa haragitzen duenean) edota laino artean bezala agertzen dira (Víctor Bartra, desagertutako aita libertarioa, edota RAFeko pilotua, hormatik zintzilikatutako aldizkari baten argazkitik Daviden konfiantzazko lagunaren papera betetzen duena, adibidez). Honetaz gain, hurrengo marka hau ere badute: azpigeneroetako pertsonaiak dirudite.

Egitura konplexua du, espazioan eta denboran egindako jauziengatik eta ahots anitzengatik, eta alor estilistikoari dagokionez, tekni-

ka narratiboen bitartez mugak apurtuz, berri batzuk jadesten ditu.

Kaleko zoruari atxikirik, errealitatearen fikzioan maisu den Juan Marséren prosaren beste ezaugarri batzuk hauexek genituzke: poetikotasuna, joera eliptikoa, mitoak sortu eta suntsitu ondoren lortutako atmosfera harrigarria, planu sinbolikoa, eleberri poliziakoaren zantzuak, irudigintza (zinearekiko liluratik datorkiona) eta fabulatzeko zein zirrara eragiteko gaitasuna.

Ezin ahantz dezakegu eleberriaren azpian gordetzen den zama morala, Jaime Gil de Biedmaren moralitate zentzua gogora dezakeena, hain baita bermea.

Hona hemen, bada, narratzaile bikaina den Juan Marséren *Rabos de lagartija*, samurtasuna darion azal gogorreko eleberria, erreportaje argazki bat bezain egiatia, arkitektura askotarikoa eta mugikorra (collage-ak collage-en gainean) eta anbiguotasunean buru-belarri murgiltzen dena.

Merezimendu osoz hainbeste sari jasotako *Soldados de Salamina*-ren irakurketak bultzatu nau *La velocidad de la luz* (Tusquets, 2005) irakurtzera. Javier Cercasen eleberrigintza gizakiarengana hurbiltzen delako, gizakia ulertzen saiatzen delako interesgarria da oso.

La velocidad de la luz Soldados de Salamina-ren ildo berekotzat jo daiteke. Izan ere, bietan guda da eszenatokia eta eszenatokia baino gehiago (*Soldados de Salamina*-n guda zibila, *La velocidad de la luz*-en Vietnamgo guda), bietan gaiztakeria da gai nagusia (*Soldados de Salamina*-n Sánchez Mazas faxistarengan haragitua, *La velocidad de la luz*-en Rodney Falk Vietnamgo soldadu ohiarengan) eta bietan teknika narratibo bera erabiltzen da (egilearekin nahasten den narratzailea).

Antzekotasunak antzekotasun, sar gaitezen *La velocidad de la luz* eleberrian. Argumentuari dagokionean, narratzailea, eleberrigile izan nahi duena, Urbanara doa, Estatu Batuetako Mendebalde Erdian dagoen hiri unibertsitariora, gaztelaniazko klaseak emateko asmotan. Han ezagutuko du Rodney Falk, Vietnamgo soldadu ohia eta

sorbalden gainean iragan iluna garraiatzen duena, langelako kidea baitu. Rodney Falk-en izaera itxia eta lakarra gorabehera, haien arteko adiskidetasun sakona gauzatuko da eta adiskidetasun horren bitartez idazle gaiak Vietnamgo infernuak Rodney Falk-engan markatutako amildegia miatzeko abagunea izango du, abagune guztiz akigarria, bestalde, amaierarik ez baitu, ezta erantzunik ere.

Javier Cercas kazetaritzatik ateratako idazlea da eta, beraz, idazlearen ofizioa barrutik ezagutzen du. Agian, horrexegatik narratzailearen larruan sarturik, eleberri baten bilakaera nolakoa den erakutsiko digu, aise erakutsi ere, eta honekin batera ospearen arriskuaz ohartaraziko, urratsez urrats ohartarazi ere.

Egiari fidel, Javier Cercasen eleberrigintzan ezaugarririk baliotsuena literaturaren bidez errealitatea interpretatzeko gaitasuna dela esango nuke.

Enrique Vila-Matasen eleberriak laborategi itxurako introspekzio lan eta eraikuntza erraldoitzat har daitezke, zeinetan liburuaren kulturaren, nortasun aniztasunaren edo ahalbideen eremuaren irizpideei jarraiturik, fikzioa errealitate bakarra den eta interpretazioak, teoriak nahiz sistemak asmatzeko prozedurak maiz erabiltzen dituen. Gauzak honela, Elias Canetti eta Robert Musil bezalako intelektualen ildotik mugitzen dela ondorioztatu ahal da.

Bartleby y compañía-n une jakin batean idazteari uko egiten dioten idazleak dakartza gogora, *bartleby*-ak, ezkortasunak bilduta, ezaren eremuan sartu eta desagertzen direnak. *El mal de Montano* edo literatura gaixotasuna, gaixotasun erakargarri eta ezin utzizkoa eta, era berean, bizia, azpikoa bada ere, daukan bide bakarra delarik. *París no se acaba nunca*-n egileak hirurogeita hamarreko hamarkadan Parisen egon zeneko aldia oinarri harturik, autobiografia fikziotua idatziko du.

Argitaratu duen azken eleberrian, *Doctor Pasavento*-n (Anagrama, 2005) Robert Walser heroi moraltzat daukan mediku psikiatra eta idazlearen ihesaren istorioa kontatzen zaigu: ageriko literatur ospe-

ak ekar litzakeen balizko abantailak saihestu eta isiltasunaren bidea, besterik ezean, hobetsiko du, mundutik desagertuko baita. Ezabatzeko prozesu horretan lumaren ordez arkatza (sotilagoa dena, aienatuagoa) erabiltzen hasiko da edota zoroetxeetan bilatuko du aterpe. Gogora dezagun, Robert Walser *Bartleby y compañía*-n agertzen dela aurreneko aldiz («Robert Walser-ek jakin bazekien ezin dela idatzi idaztea ere idaztea dela»), zeren Vila-Matasen literaturan oro baita jarraibide, liburu bateko pasarteak beste liburu baterako islak gerta daitezkeelarik, leku batzuk beste leku batzuen oihartzunak eta pertsonaien arteko jokoak, berriz, amaigabeak.

Hasieran aipatu erreferentzia puntuak lagun, bere ibilbidean zehar Vila-Matasek argi eta garbi uzten digu munduarekiko eta literaturarekiko ikuspegia. Errealitatearekiko muzinkeriagatik eta bizitzarekiko distantzia mantentzearren, fantasiaren alde jarriko da. Eta fantasiarekin batera eremu metafisikoa. Ideien gainean eraikitako literaturaren aldekoa eta intelektuala, filosofiari (zalantza eta galderei) tarte zabalak eskainiko dizkio.

Honetaz gain, *Doctor Pasavento* honetan ere hurrengo ezaugarriok aletuko dizkigu: errealitatearen eta fikzioaren arteko nahasketa, generoen arteko eklektizismoa (autobiografia, eleberria, saiakera, "micrograma"...), simetrien eta paralelismoen bidez ehotako kasualitateak edota zatiarekiko jaidura, testu literario osoa lortu arte aletu ere.

Hemen daukagu *Doctor Pasavento*, orotariko eleberria, jorratu gabeko bideen bila joateko asmotan eleberrigintzaren muga zaharrak eraberritzen diharduena, esperimentatzen ari, arlo desberdinetan eraberritu eta esperimentatu ere. Eta irakurleak orrialdeak igaro heinean, irudimen harrigarria, artearekiko atxikimendua, eza bihurtzerainoko norberaren suntsiketa, oroimena eta ahanzdura, itzala eta isiltasuna, istorioen eta pasarteen mataza eta hitz zurrunbiloa aurkituko ditu, adibidez. Edota, bestela esanda, idazle inteligente baten goi mailako literatura.

TERE IRASTORTZA

Mikel Lasaren
"Memomy Dump"[1]*: Memoria iraganeti askatzeko saioa.*

Aspaldi, hain aspaldi non mitiko bihurtu den garai hura, Mikel Lasa eta Amaia Lasak *Poema bilduma* izeneko liburua argitaratu zuten. Mikel Lasak, 2000. urtean, "plaketa" deitu zion liburu hari.

Gero literaturari buruzko ikasketa argitaratu zuen Mikel Lasak (*Novela berria Hego Amerikan*) eta hainbat itzulpen (*Mimoak, Ostirale edo bizitza basatia eta Denboraldi bat infernuan*).

Gero isilaldi luze bat etorri zen. Hain luzea non miragarritzat geneukan, Mikel Lasak euskal poesia modernoari beste jite bat eman ziola irizten genuenak. Hain sakona non, urteak pasa ahala emankor izaten jarraitzen duen hausnarketa-bideak.

Memory Dump liburuak, hein horretan, egilearen isiltasuna urratu beharrean, literatura bidez xuxurlatu nahi genezakeen horri adi jarri gintuen, berriro.

Memory Dump liburuan, *Poema bilduma* hartako poema eta poema haien erdal itzulpenaz gain *Osagarriak* izeneko dietario antzeko bat argitaratu zuen. Erdaraz, hain modu machadozalean " Los complementarios " gisara itzulia izan zena.

Dietarioetako testu hauek laburrak dira, orri batekoak, gehienak, 102. orrian agertzen den faksimilean, agenda batean edo idatziak izan direlako, agian. Soka trabatzeko harkaitzean jarri diren gakoak bezalakoak direlako, agian.

Memory Dump-ek biltzen dituen osagarriak, edonola, askotarikoak dira. Badira marrazkiak, badira poemak, badira oharrak, badira hausnarketak. Batzuk euskaraz daude, beste batzuk gazteleraz edota frantsesez.

Sarri egunerokoak gure eguneroko gorabeheren lurreratze pista-

tzat dauzkagu. Mikel Lasaren poemetan, eguneroko xehetasunez haratago, pertsonaren intimitatea osatzen duen galdera eta kezken joan-etorri geraezina dakusagu.

Ez da, heriotza, Jainkoa, hutsunea... hizpide hartuta sortutako burutazio-liburua, eta alde horretatik, gaizki egingo genuke *Poema bildumako* poesientzako argibide bila joz liburu honetara.

Liburu honetan argitaratutako pasarteekin irudiek, testuek... itsasargiak bezala egiten dute dir-dir, urrutira. Baina bertakoa ez da arrazoitze saio bat eta ezta hustutze saio bat. Sekula erabat asetzen ez gaituzten erantzunei galdezka gizakiok asmatu ohi dugun osagarritasun bidea baizik.

Mikel Lasaren liburuaren ostean etorri ohi dira beste batzuk ere gure letretara. Joseba Sarrionandiak ere oso maite izan du idazketa hau *Marginalian Ez gara gure baitakoak* liburuan edo *Hitzen ondoeza* liburuan, esate batera.

Liburu honen indarra ez dago, inolaz ere, zirkunstantzietan, aipamenetan aurki ditzakegun zantzuetan, bere lanerako, bere hausnarketarako hartutako oharren zorroztasun eta zehaztasunean baizik. Ez dira bere testuak aforismo borobilak; ezta edergarriak ere. Mikel Lasak izendatze hutsarekin hutsaltzen diren ideiak zorrozten ditu. Eta hizkuntzaz, idazteaz, gogoratzeaz eta bizitzeaz, jainkoez eta aingeruez, asetzeaz eta osatzeaz ari delarik ematen du kolpea: memoria iraganaren kolpetik askatzen asmatzen duen kolpea.

Horixe da, ziurrenera, liburua horren erradikal bihurtzen duena: erroetara jotzea ez baita iraganera jotzea; erroetatik elikatzea ez baita iraganetik bizitzea.

OHARRAK

1. Mikel LASA *Memory Dump*. (1960-1990) 1993. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

Hegats-en argitaratu nahi baduzu:

- Nora bidali: testuak posta elektronikoz edo posta arruntez EIEra bidali beharko dira *Hegats*-erako direla esanez.
- Nola bidali: testuak euskarri elektronikoan helarazi beharko dira.
- Data: EIEk urtean bi ale argitaratzen ditu (uztailean eta abenduan). Kasu batean zein bestean, testuak hiru hilabete aurretik bidali beharko dira.
- Karaktere kopurua: idatzi beharreko karaktere kopurua, sailaren arabera, honakoa da:
    - Literaturbideak: Prosa (ipuina...): 18.000 kk gehienez
      Poesia: 320 lerro gehienez
    - Kritikabideak: artikulua (saiakera...): 18.000 kk gehienez
    - Liburu-iruzkinak: 5.000-9.000 kk artean
- Idazkuntza-kontseiluak egileari hartutako erabakiaren berri emango dio.
- Idazkuntza-Kontseiluaren eta egilearen arteko harremana, ahal dela, e-postaren bidez burutuko da.

Harpidetu zaitez:

Urteko harpidetza: 12€ (urtean 2 zenbaki). Dendan ale bakoitza: 7 €

✂ -

HARPIDE-TXARTELA

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... P.K: ..... Tel: .....

Banku edo Kutxa: .....

Kontu-zkia (20 digito): .....

EIE

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
Zemoria 25
20013 DONOSTIA
Tel: 943.27.69.99; Faxa: 943. 27.72.88
e-posta: eie@eie.euskalnet.net

Ale honetako kolaboratzaileak:

- **VICENTE HUICI** (Iruñea, 1955). Filosofia eta Letretan Lizentziatua. *El Cárabo - Revista de Ciencias Sociales* Erredakzio Kontseiluaren Idazkaria izan da eta *La (s) Otra(s) Historia(s)* editorea. Bestalde, *Teoría del extraño movimiento* liburua, Premio Ámbitoren finalista izan zen.
- **EDORTA JIMENEZ** (Mundaka, 1953). Omar Nabarro heteronimoarekin hasi zen poemagintzan. Ipuingintzan *Urdaibaiko ipuin eta kondairak* eta Gabriel Aresti saria irabazi zuen *Atoiuntzia* idatzi ditu. Azken urteotakoak dira, *George L.Steer, Gernikan izan zen kazetaria, Sukar ustelaren urtea, Robert Capa, Koioteren arrastoa.*
- **JERARDO ELORTZA** (Oñati, 1944). Filologia Alemana ikasi zuen Deustuko eta Münster-eko unibertsitateetan. Bergarako Aranzadi ikastolan eta UNEDeko Euskal Kultur Departamentuan aritu zen lanean luzaroan. Azken urteotan Mondragon Unibertsitateko irakaslea da Oñatin.
- **FITO RODRIGUEZ** (Gasteiz, 1955) Filosofia eta Letretan lizentziatuta. Hezkuntza Zientzietan Doktoratu zen 1988. urtean. Bere lanen artean, *Magrittek ez omen zuen pipaizen, Jeux de Paume, Kasandra leihoan.* Honez gain, editore lanetan aritu izan da beste zenbait argitalpenetan: *Mintzamena eta erreala, Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa, Euskal Herriko Hezkuntzaren Historiarako gai eta liburuen gida*, besteak beste.
- **ARITZ GORROTXATEGI** (Donostiako Gros auzoa, 1975). Zuzenbidean litzentziaduna. 2000. urtean Irun Hiria saria irabazi zuen *Kafkaren labankada* eleberriarekin. Gerokoak ditugu *Taxi bat Hamletentzat* poema-liburua, *Egurra Pinotxori* ipuin-bilduma eta *Galtzontziloak autobusean zintzilik* kronika-liburua. 2005ean kaleratu zuen *Kearen truke* eleberria.
- **LEIRE BILBAO** (Ondarroa, 1978). Zuzenbide ekonomikoan lizentziatua. *Ezkatak* (Susa, 2006) poesia liburua argitaratu du, eta haur literaturaren alorrean *Amonak nobioa du, eta zer?*
- **TERE IRASTORTZA** (Zaldibia, 1961). Euskal Filologia eta Filologia Hispaniarreko ikasketak egin zituen. Argitaratutako liburuen artean, besteak beste: *Manual devotio gabecoa, Glosak, Esana zetorrenaz, Derrotaren fabulak, Osinberdek khantoreak Izen gabe direnak. Haurdunaldi beteko khantoreak* Espainiako Kritika saria jaso zuen 1981 eta 2004 urteetan.
- **AMAIA ITURBIDE** (Bilbo, 1961). Euskal Filologian lizentziatua. Hiru poema liburu argitaratu ditu: *Eskaileraren bi aldeetan, Itzulbidea* eta *Gelak eta zelaiak.* Saiakera ere jorratu izan du, hala nola: *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza* eta *Mimodramak eta ikonoak gidari, estetikan barrena.*
- **LUZIEN ETXEZAHARRETA** (Hazparne, 1943). *Maiatz* literatur aldizkariaren koordinatzailea eta Gure Irratiko esataria. 2005ean XVII. Rikardo Arregi kazetaritza sarian Ohorezko Aipamena lortu zuen. *Margarita inter porcos* liburua argitaratu zuen 1993an.

Hegats

38

Literaturbideak

ARITZ GORROTXATEGI
Zergatik ez dute ihes egiten elefanteek?

LEIRE BILBAO
Memoria II

Kritikabideak

EDORTA JIMENEZ
Itsasoko memoriak

FITO RODRIGUEZ
Idazle ibilbideak Swanen bidean

Txosten monografikoa: Egunerokoak eta memoriak.

VICENTE HUICI
Eguneroko eta dietarioak

JERARDO ELORTZA
Memoriak eta autobiografiak euskaraz

Elkarrizketa:

PIARRES XARRITON
Iparraldeko literatura bideen iturrietaz 20. mendean. Luzien Etxezaharreta

Liburu-iruzkinak:

AMAIA ITURBIDE
Hiru bide eleberrigintzan

TERE IRASTORTZA
Mikel Lasaren *Memory Dump*

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA